

Gipuzkoako errepublikanismoaren azterketa prosopografikoa (1868-1923)

Analyse prosopographique du républicanisme guipuzcoan (1868-1923)

Análisis prosopográfico del republicanismo guipuzcoano (1868-1923)

BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, UNAI

UPV/EHUko irakasle eta ikertzailea

unai.belaustegi@ehu.eus

BIBLID [1136-6834, eISSN 2386-5539 (2014), 40; 59-90]

Hartua: 2015.01.30

Onartua: 2015.04.20

Gipuzkoako errepublikanismoari buruz (1868-1923) egindako ikerketa zabalaren baitan, kultura politiko horren protagonista izan zirenen perfilak definitu dira biografia zehatzak erabiliz. Biografia horiekin, errepublikanismoaren azterketa prosopografiakoa burutu da, kultura politikoa hobeto ezagutzeko asmoz. Protagonisten nolakotasunak taldearen nolakotasunean eragin zuzena duela pentsatzen dugu eta ikerketa honek, errepublikanismoa II. Errepublikara aurretik nolako zen ulertzeko azalpen zabalago bat eskaintzen du.

Hitz gakoak: Errepublikanismoa. Errepublika. Biografia. Prosopografia. Liberalismoa. Lanbide liberalak.

Après avoir rédigé les biographies des protagonistes du républicanisme guipuzcoan, de la période 1968-1923, nous avons procédé à l'analyse prosopographique du républicanisme guipuzcoan pour comprendre sa culture politique. Les profils des protagonistes individuels conditionnent directement l'ensemble du groupe et, par conséquent, la prosopographie du républicanisme entre 1868 et 1923 offre une approche moins habituelle dans les études sur le républicanisme avant la Deuxième République.

Mots clés: Républicanisme. République. Biographie. Prosopographie. Libéralisme et professions libérales.

Una vez realizadas las biografías de los protagonistas del republicanismo guipuzcoano, del período 1968-1923, , hemos llevado a cabo el análisis prosopográfico del republicanismo guipuzcoano para poder entender su cultura política. Los perfiles de los protagonistas individuales condicionan directamente al conjunto del grupo y por lo tanto, la prosopografía del republicanismo entre 1868 y 1923 ofrece un enfoque menos habitual en los estudios del republicanismo anterior a la Segunda República.

Palabras clave: Republicanismo. República. Biografía. Prosopografía. Liberalismo y Oficios liberales.

1. PROSOPOGRAFIAREN NONDIK NORAKOAK

Estatuko gainontzeko lekuetan bezala, Euskal Herrian ere 1868ko Iraultzaren ostean plazaratu zen errepublikanismoa, eta 1923an Primo de Riveraren diktadura hasi arte, ia etenik gabe erakunde publiko ezberdinetan ordezkariak lortu eta indar politiko indartsua bihurtu zen hiri eta herri nagusienetan. Gure lehendabiziko helburua, Gipuzkoan errepublikanismoak bizitako bilakaera aztertzea izan zen, baina horretarako, partidu errepublikanoez gaindiko ikerketan sakontzea pentsatuta, aipatu partidu politikoeetatik haratago, kultura politiko errepublikanoa bere osotasunean ikertu nahi izan da. Gainontzeko kultura politikoeekin egin beharko litzatekeen moduan, errepublikanismoa *sortu*, osatu eta aurrera eraman zuten protagonistak kontuan hartzea ezinbestekoa da, eta horretarako tresnarik baliagarriena, teknika prosopografikoa da¹.

Prosopografia kontzeptuaren jatorria zibilizazio Helenoan aurkitu behar da, *prosopon* eta *graphos* hitzen batasunean hain zuzen ere. *Graphos* hitza idazkerarekin erlazionatu behar da eta *prosopon* aldiz, «pertsonei buruz idaztea litzateke»². Baina adiera hori, historia ikertzeko metodologia moduan aplikatu nahi bada behintzat, hemen egin den bezala, bere osotasunean ulertzea ezinbestekoa da. Ezin ulertu daiteke prosopografia norbanakoei buruzko biografiak egite soila bailitzan, baizik eta biografia multzo baten konparaketa bat egitea da prosopografia. Era berean, konparaketa hori ez da protagonisten kanpo faktoreen alderaketa soila bakarrik, baizik eta «subjektu kolektiboaren» barne erlazioetara iristea du helburu metodo prosopografikoak. Edo beste era batera esanda, ezaugarri zehatz batzuk betetzen dituzten aktoreekin kolektiboa osatzen duen protagonisten ezaugarri komunak nabarmentzea da metodo prosopografikoa erabiltzea.

Metodo prosopografikoaren erabilera historian aspalditik datorren kontua da. Hasiere batean aktore politiko, administratibo edo militarri zuzenduta egon zen, batez ere erromatar garaiari lotuta. XX.mendean zehar, poliki-poliki historia garaikidea aztertzeko tresna bihurtzen hasi zen, historia sozialarekin gero eta hurbiltasun handiagoa lortzen joan zen bitartean³. Azken urteotan, biografiaren eta honekin lotuta prosopografiaren indartzea ezagutu da, hein handi batean, teoria marxisten porrotak eta neoliberalismo politiko eta ekonomikoak gizabanakoaren aldarrian izan duen eraginaren ondorioz, pertsona bakoitza historiaren aktore aske eta

1. Lau urtetako ikerketaren lehen emaitza, Gipuzkoan errepublikanismoaren bilakaera ulertzeko balio duena: BELAUSTEGI, Unai. *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*, Bilbao: UPV/EHU, 2015; 400 or.

2. Prosopografia hitza antzinako historialariek erabiltzen zutena da. Modernoagoek biografia kolektiboa erabili ohi dute. Arlo sozialeko ikertzaileek bestalde, «*análisis múltiple de línea de curso*» adiera nahiago dute; STONE, Lawrence. *El pasado y el presente*, Mexiko: FCE, 1986; 61.or.

3. Metodo prosopografikoaren bilakaera hobeto ezagutzeko irakurri adibidez, KEATS-ROHAN, K.S.B.: "Prosopography and computing: a marriage made in heaven?", *History and Computing*, 12-1 (2000), 1-11.orr., edo AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba eta URQUIJO GOITIA, Mikel. "Desafíos de la biografía en la historia contemporánea", *Cercles*, 10.zkia (2007), 57-61.orr.

beharrezko bat dela dioen indibidualismoaren teoriarekin ezin hobeto uztartzen delako.

Gogoeta hau egin zuen Piquerasek biografia kolektiboen inguruan «*Leemos vidas que difícilmente viviremos pero que ensanchan nuestra percepción de la dimensión humana. (...) la historia de un individuo es, antes de nada, el recuento de los acontecimientos que atañen a una vida*»⁴. Prosopografiak beraz, norbanakoari garrantzia emanez, norbanako parte den kolektibotasun baten ezaugarri komunak azaleratzen ditu.

Baina metodo prosopografikoaren erabilpena baliagarria izan dadin, alegia, kolektiboaren barne ezaugarriak zehazteko balio dezan, biografiak eraiki behar dira eta aldi berean, biografiok galdera zehatz batzuk erantzun behar dituzte. Galdera horiek lortu nahi diren helburuaren arabera aldatu badaitezke ere, normalean protagonisten ezaugarri zehatzekin lotura izan ohi dute: jaiotza, heriotza, ezkontza, familia, jatorri soziala, egoera ekonomikoa, bizilekua, jasotako hezkuntza, aberastasun pertsonal eta familiarra, lanbidea, erlijioa... Behin galdera horiei erantzunda, emaitzak alderatzen dira, aldagai garrantzitsuenei kasu eginez⁵. Edo Jean Andreuk Bergeron eta Chaussinand-Norageten teoriari jarraituz aipatu zuen eran, «*se trata, a partir de unas personalidades, de 'preparar la definición de los tipos', de hacer brotar los rasgos comunes y las diferencias, a partir de lo singular, de hacer de lo 'singular plural'*»⁶.

Prosopografia baliagarria izan dadin, Carasaren arabera, ezin dira talde oso handiak hartu ez eta mende batetik gorako tarte kronologikoak ere. Eta erantzun beharreko kezka oso ondo zehaztuta egon behar da. Era berean, ahalik eta iturri gehien begiratu behar dira eta egiten diren galderak posible den neurrian ahalik eta zehatzenak izan behar dira. Baldintza hauek bete ez eta ohikoa da metodo prosopografikoan zenbait akats burutzea. Alde batetik, Carasak berak dioen *homo politicus* edo Stonek aipatzen duen *homo economicus*-aren nagusigoaren ondorioz, eskaintzen den informazioa politikagintzari edo interes politikoei lotutakoa bakarrik izan ohi da askotan⁷. Bestetik, pertsonaia zehatz batzuek azterketa prosopografikoa gehiegi baldintzatu dute sarri. Bigarren kasu hau ekiditeko, azterketa egin aurretik azterketa mugatuko duten parametroak zehaztea ezinbestekoa da eta ondoren, aurrez aipatu ditugun galderak ongi azaltzea. Modu honetan, lortzen diren emaitzak ez dira protagonista zehatz batek edo batzuek baldintzatutakoak izango, eta eskainiko den ikuspegia orokorragoa izango da.

4. PIQUERAS, José A. "De la biografía tradicional a la historia individual, grupal y masiva", in CARASA SORO, Pedro (ed.). *Elites. Prosopografía contemporánea*, Valladolid: Universidad de Valladolid, 1995; 54-55.orr.

5. STONE, Lawrence. *El pasado y el presente... op.cit.*, 61-62.orr.

6. ANDREU, Jean. "Prosopografía", in BURGUIÈRE, André (zuz.). *Diccionario de ciencias históricas*, Madril: Akal, 1991; 280.or.

7. CARASA SORO, Pedro. "La recuperación de la historia política y la prosopografía", in CARASA SORO, Pedro (ed.). *Elites. Prosopografía contemporánea*, Valladolid: Universidad de Valladolid, 1994; 41-51.orr., edo STONE, Lawrence: *El pasado y el presente...aip.a.uk.*, 76.or.

Noski, hemen, beste arazo batekin egin ohi da topo: iturrien eskasia. Edozein ikerketa historiko burutzerako orduan, iturriak mugarri garrantzitsua dira. Zailtasunak ikaragarri handitzen dira gainera biografiatuek gizarte mailan behera egiten duten heinean, eurei buruzko informazioa esponentzialki jaisten baita⁸. Gauza bera gertatzen da protagonistok zentro politiko ekonomiko eta sozial garrantzitsuenetik aldentzen direnean. Gipuzkoaren kasuan, Donostiatik kanporako herrietako protagonistekin arazo hori bera errepikatu da⁹.

2. PROSOPOGRAFIA EGITEKO TALDEAREN ANTOLAKETA

Gipuzkoako errepublikanoen biografia multzoa 85 errepublikanora mugatu da, 1868 eta 1923 bitartean eta noski, probintziako esparru geografikora. Taldea osatzeko hartu den lehendabiziko irizpidea, Gorteetan eta Diputazioan izandako ordezkariak izan da. Ez dira udaleko zinegotziak aukeratu, izan ere, guztiak zeintzuk izan ziren zehaztea ezinezkoa izan baita. Beraz, Gorteetan eta Diputazioan egondako ordezkariekin, 29 laguneko zerrenda bat burutu da, Gorteetan 4 eta diputazioan guztira 25 egon baitziren –karguak errepikatu zituztenak behin kontutan hartuta, noski¹⁰.

Hauetz gain, probintziako errepublikanismoaren bilakaeran arduraren berezia izan zuten kideak ere kontuan hartu dira, hala nola, egunkari ezberdinen sorreran parte hartu zutenak edo egunkariak zuzendu zituztenak, errepublikanismoaren bilakaeran izan zuten pisuagatik. *La Voz de Guipuzcoa* Donostiako egunkari errepublikanoaren sortzaileen artean adibidez, aurrez aipatu instituzioetan parte hartu zutenak kontutan hartu gabe, beste 16 lagun gehitu dira¹¹. Egunkariaren zuzendariei dagokienez, gutxienez urtebete iraun

8. STONE, Lawrence: *El pasado y el presente...aip.auk.*, 75.or.

9. Autorearen ustetan, biografia indibidualen eta kolektiboaren arteko harreman honek kontraesan handi bat darama bere baitan. Protagonisten inguruko informazioa gorde bada, horrek esan nahi du bere ingurukoengandik ezberdintzen zuen zerbait egin zuela, arazoaren batengatik nabarmendu zela –liburu bat idatzi, presidente izan...– eta beraz, bere presentzia gainontzekoengandik bakarra zitzaion ezaugarriagatik iritsi dela gaur egunera arte. Hala, metodo prosopografikoa erabiltzerako orduan, talde baten ezaugarri komunak bila ari gara berez bakarrik izan zitzaion ezaugarriak azpimarratuz. Soluzio zailko kezka honen erantzun posible bat honakoa: «*El resto no tiene biografía, se convierte en masa de la historia*»; AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba eta URQUIJO GOITIA, Mikel. «Desafios de la biografía...», 62.or.

10. Francisco Zavala Berrezarkuntzan diputaziora sartu zen. Bestalde, Ignacio Ibarzabal eta Justo Maria Zavala II. Gerra Karlistaren aurretik diputazio ezberdinetan parte hartu zuten arren, ez dira kontuan hartu.

11. *La Voz*-en sorreran edo enpresaren eraketan era batera edo bestera parte hartu zuten artean, gutxienez 21 lagun aurkitu dira: Manuel Urcola, Benjamin Brunet, Tomas Bermingham, Ramon Usabiaga, Francisco Goitia, Andres Egoscobal, Marcelo Garat, Benito Jamar, Blas Escoriaza, Victor Acha, Feliciano Echeverria, Agapito Ponsol, Leandro Uranga, Samperio Erquicia, Manuel Oa Amilibia, Antonio Echeverria, Ramon Fernandez, Fermin Barech Lopez, Agustin Vergara, Pedro Brunet eta Jose Brunet. Hauek guztiak errepublikanoak zirela ziurra da. Hauetz gain, Guillermo Brunet aipatu behar da, herentziaz *La Voz*-en akzioen jabe egin baitzen, ziur asko, Jose Brunet 1891an hil ostean, haren kotsul postuaz jabe egin zen moduan. Guillermo Bruneten joera politikoaz zalantza asko daude, monarkikotzat deskribatua izan baita orain artean, baina autoreak Guillermo Brunet izeneko errepublikano bati buruzko aipuak ere aurkitu ditu.

zuten zuzendariak hartu dira kontutan. Eduardo De la Peña aurretik, *La Voz* zuzendu zutenak, behin behineko zuzendariak izan ziren, *directores de paja* deitzen diren horietakoak eta gainontzeko egunkarietan ere halako ugari aurkitu dira, esaterako, Francisco Cayuela madrildar errepublikanoa, *La Región Vasca* egunkariko lehendabiziko zuzendariak hilabete gutxi batzuk igarota egunkariaren jabeekin izandako arazoaren ostean dimisioa aurkeztu baitzuen. Beraz, zuzendariok kontutan hartuta, beste 6 laguneko zerrenda txikia egin da.

Eta azkenik, nolabait talde heterogeneoa zehazten saiatu da, irizpide ez hain objektibo baina ahalik eta zurrunena erabiliz, errepublikanismoaren ikerketan zehar irakurri eta ikasi denarekin indartuta, autorearen ustetan kontutan hartzeko modukoak izan ziren errepublikanoak batu dira, aurreko irizpideetan sartu ez baziren ere, Gipuzkoako errepublikanismoaren bilakaera ulertzeko ezinbestekoak direnak. Hauek izan ziren bileretan parte hartu eta euren iritziek gainontzekoen martxan eragin zutenak, nahiz eta zinegotzi izatera edo zentroetan aparteko kargurik ez izan¹². Agian adibide aipagarrienak, batzuk aipatzearen, Antonio Iturrioz Eibarko alkatea izandakoa, edota Leopoldo Ducloux donostiar argazkilaria federala egon daitezke. Iturrioz Eibarko alkatea izateaz gain, Eibarko errepublikanismoaren baitan urte askotan izan zuen eragina nabarmena da. Leopoldo Ducloux, diputaziora sekula iritsi ez bazen ere, federalen artean bereziki baina partidu errepublikano ezberdinetan izan zuen eragina eta presentzia berebizikoak izan ziren Donostiar errepublikanismoaren bilakaeran. Guzti hauek, errepublikanismoaren zuzendaritzan sartuko liriateke¹³.

Talde honekin beraz, beste 34 laguneko zerrenda burutu da, aurrekoei gehituz gero, 85 errepublikanoen zerrenda zabala osatu delarik. Azken irizpide honen harira zalantza gehiago egon badaitezke ere, autoreak adierazi nahi du, bere asmoa gipuzkoar errepublikanismoaren elitearen ikuspegia baino zabalagoa izan zena eskaintzea izan dela eta horregatik zabaldu dela gainontzeko kideengana. Postu administratiboetan eta egunkariaren sorrera eta zuzendaritzara mugatuz gero, ondorioztatuko zen irudia errepublikanismoaren zati batena izango litzateke bakarrik, probintzia mailan nabarmendu zirenean, eta ez tokian tokiko elitearena¹⁴, eta beraz, ez letorke bat Eibar, Bergara, Irun


12. Halako pertsonaien agerpenak, jatorri apalagoetako kideak izan ohi zirenak edo elite ekonomiko eta politikoetatik ez zetozenek indarra hartzeak, errepublikanismoa eliteen partiduen izaeratik askatzen ari zela adierazi nahi du eta masa partiduen itxura hartzen hasia zela. Eliteen partidutik masa partidurako bilakaera –eta ondorengo *catch all* eta *kartel* egiturako partiduetaraso ongi azaldu zuten, KATZ, Richard S. eta MAIR, Peter. “La transformación de los modelos de partidos y de la democracia de partidos”, *Zona Abierta*, 108/109.zkia (2004), 14-20.orr.

13. Zoritzarrez azterketa honetan sartzeari gustatuko litzaigukeen zenbait errepublikano ere kanpoan geratu dira, besteak beste Errenteriako Sixto Huerta edota Los Santos familia –Victoro, Leoncio eta Cruz–, herriko errepublikanismoaren bilakaeran garrantzi berezia izan zutenak, Cristobal Carrasco donostiar erradikala, Cruz Madinaveitia arrasatear errepublikano garrantzitsua edota Pedro Limousin, zeina Berrezarkuntzan Tolosako errepublikanismoa antolatzeko arduradun nagusienetarikoa izan zen –inbertsio ezberdinak zituen besteak beste, Tolosako Bankuan, 1991an, La Soledad eta Limoussin Hermanos enpresetan–. Hauei buruz informaziorik ez da lortu, eta informaziorik gabe gutxi eskaini zezaketen azterketa prosopografikoan.

14. «Elite» adieraren inguruko gogoeta historiko kritikoa aurkitu daiteke klasiko honetan; BOTTOMORE, Tom. *Élites y sociedad*, Madril: Talasa, 1995. Definizio zehatzago bi adibidez,

edo gainontzeko herrietako errepublikanoen gehiengoaren perfilarekin.

Protagonista hauen biografiak egiteko erabili den fitxa biografikorako autorea parte den ikerketa taldeak burutu dituen hiztegi biografikoetan erabili den egitura jarraitu da¹⁵:



- Famili zirkulua: pertsonaiaren jaiotza, bizi ibilbidea eta heriotza, eta horren baitan sartu daitezkeen gainontzekoak, hala nola, familiartekotasuna, mugikortasuna, bizilekuak...
- Oinarri materiala: pertsonaiaren ondasun eta errentaren inguruko datuak.
- Inguru sozio-kulturala: protagonistak jasotako heziketa, jarduera profesionala eta giro kulturala.
- Zirkulu politikoa: jarduera politikoari buruzko datuak, udalean, diputazioan nahiz Kongresuan egindakoak eta ahal den neurrian baita bilakaera politiko ideologikoa ere.

CHAUSSINAND-NOGARET, Guy: "Elites", BURGUIÈRE, André (zuz.). *Diccionario de Ciencias Históricas*, Madril: Akal, 1991, 244-246.orr., edota ACOSTA RAMIREZ, Francisco. "Los estudios sobre elites en Andalucía: estado de la cuestión", CARASA SORO, Pedro (ed.). *Elites. Prosopografía contemporánea*, Valladolid: Universidad de Valladolid, 1994, 259-268.orr. Azken honi zera irakurri diezaiokegu (261.or.): «*Todo grupo o individuo que en virtud de su posición política, económica, social o cultural es capaz de acceder y controlar el proceso político de toma de decisiones que determina los elementos estructuradores de sus niveles, nacional, provincial o local*».

15. Ikerketa taldeak egindako lanen artean: AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba et al. (zuz.). *Diccionario biográfico de parlamentarios de Vasconia (1876-1939)*, Gasteiz, Euko Legebiltzarra, 2007, AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba et al. (zuz.). *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1800-1876)*, Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 2007, AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba eta SERRANO, Susana. *Bilbao desde sus alcaldes: Diccionario biográfico de los alcaldes de Bilbao y gestión municipal, en tiempos de revolución liberal e industrial, vol.1: 1836-1901*, Bilbo, Bilboko Udala, 2002. . Hiztegi hauetan erabilitako metodologiaren inguruan gehiago jakiteko: AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba eta URQUIJO GOITIA, Mikel. "La prosopografía, una història des dels actors", *Papers del Museu d'Historia de Catalunya*, 7.zkia (2003), 17-20.orr.

- Pertsonaiaren argazki eta sinadura eta ondoren biografia egiteko erabili diren iturri eta bibliografia zehatza.

Behin pertsonaien zerrenda zehaztuta, bakoitzaren fitxa betetzeko erabilitako informazio iturri ezberdinak erabili ditugu. Alde batetik, bibliografia, orokorra edo pertsonaietan zentratu direnak, nahiz eta gure zerrendakoei buruzko lan zehatzik ia aurkitu ez¹⁶. Ondoren gure liburutegietan dauzkagun entziklopedia ezberdinak eta lan biografikoak ikuskatu dira, hala nola, IBEP¹⁷, Jon Bilbaok zuzendutakoa¹⁸, Javier M^a Sadarena¹⁹ edota Elias Amezagarena²⁰. Internet bidez aurkitu daitezkeenei ere erreparatu zaie, esaterako Auñamendirena²¹. Euskal Herriko zenbait erakundek dituzten datu base batzuk ere erreparatu dira, hala nola, Sancho el Sabio Fundazioa, Koldo Mitxelena Kulturuneko edota Oñatiko artxiboetakoak.

Artxiboetara dagokionean, bibliografiari eskaintako atalean irakurri daitezkeenetan ahal den neurrian protagonistei buruzko informazioa biltzen saiatu da. Hauen artean aipatu beharko lirateke baita, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako elizbarrutietako artxibo historikoak. Eta Unibertsitate ezberdinetakoak, hala nola Madrilgo Unibertsitate zentraletako eta Valladolideko unibertsitateetako²². Eta bukatzeko, ikerketa honen oinarria izan diren iturri hemerografikoak aipatu behar dira. Eurak izan dira informazio gehien eman dizkigutenak, ohikoak izan baitziren egunkariotan kideen biografiak egitea, normalean hil ostean.

16. Salbuespen batzuk badaude, esaterako, Eibarren kaleratutako Aguirre familiari buruzkoa, NARBAIZA AZKUE, Antxon. *Eibarko Agirre Medikuak. Hiru mende medikuntzan (1860-2006)*, Eibar: Eibarko Udala, 2006, Jose Mari Lopetegui bertsolariari buruzkoa, ELOSEGI, Joxan (ed.). *Joxe Mari Lopetegi. Errepublikanoen bertsolaria (Irun 1875-Arrueta 1942)*, Zarautz: Paper Hotsak, 2004, Mariano Salaverriaren anaia izan zen Jose Mariari buruzkoa, PETRIZ RAMOS, Beatrice. *Introducción crítico-biográfico a Jose María Salaverria (1873-1940)*, Madril: Gredos, 1960, Francisco Gascuek berak idatzitakoaren birredizioa zeinak Edu Alonsok haren biografia eta lana laburtu zuen sarrera dakarren, ALONSO OLEA, Eduardo (ed.). "Introducción", GASCUE, Francisco. *El Concierto Económico con el Estado*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, EHU, 2003.

17. *Índice biográfico de España, Portugal e Iberoamérica*: Munich, Saur, 1997.

18. BILBAO, Jon. *Eusko Bibliografía, 1976-1980*, Bilbo: EHU, 1985-1987.

19. SADA, Javier M^a. *Historia de San Sebastián a través de sus personajes*, Donostia: Alberdania, 2002.

20. AMEZAGA, Elias. *Autores Vascos*, Bilbo: Gorika, 1984-1987, 10 bol.

21. Interneteko honez gain, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Diccionario Enciclopédico Vasco*, Donostia, Auñamendi 1970-2001, 57 bol., edota Jon Bilbaok zuzendu zuena erreparatu dira, BILBAO, Jon. *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Donostia, Auñamendi, 1976-1981. Hauxez gain, beste zenbait entziklopedia orokor ere erabili dira, tartean, CASARES RODICIO, Emilio (zuz. eta koord.). *Diccionario de la música española e Hispanoamericana*, Madril: Sociedad General de Autores y Editores, 1999. Donostian kaleratu zen *Euskal-erria* aldizkari famatua ere ahal izan den neurrian ia osoki erreparatu da. Bestalde, aipagarria www.familysearch.com atariak eskaini duen laguntza, gutxienez Estatuko eta Frantziako elizbarrutietako informazioa dotore digitalizatuta baitaukate.

22. Zaragozako unibertsitateko artxiboarekin konparatzen ere saiatu da, baina zorterik ez da eduki.

Beraz, bibliografian, artxibotako dokumentuetan eta egunkarietan oinarritutako datu bilketarekin aipatu biografiak antolatu eta ondorengo analisi prosopografikoa burutzeko adinako edukia lortu da, jarraian ikusiko den eran.

3. JATORRI GEOGRAFIKO ETA KRONOLOGIKOA

Ikertu diren 85 errepublikanoek azaleratu duten lehendabiziko datu aipagarria, gipuzkoar errepublikanismoa Euskal Herrikoa eta ia bere osotasunean gipuzkoarra izan zela da. Gipuzkoarra eta erabat maskulinoa, biografiatu diren guztiak gizonezkoak baitira. Protagonista guztietatik gutxienez hiru laurdenak, 67, Euskal Herrian jaio ziren, eta horietatik gutxienez 61, Gipuzkoan. Euskal Herritik kanpora jaio ziren 19en artean, Estatuan 9 jaio zirela nahiko ziurra da²³ eta beste 7 kideren jatorriari buruz ez da informaziorik lortu, nahiz eta nahiko ziurra den batzuk Euskal Herriko beste puntu batzuetatik etorri zirela. Nazioartean jaiotakoak 2 besterik ez: Leopoldo Ducloux eta Jose Azpiri²⁴. Lehendabizikoa Frantziatik joan zen Gipuzkoara, Iruñetik igaro ostean Donostian amaitu zuelarik, ziur asko bere argazkilari ofizioari hiri berriak eskaintzen zizkion erraztasunengatik. Jose Azpiri bestalde, nahiz eta Eibarren nahiko gaztetatik bizi, Kuban jaio zen.


Gipuzkoatik kanpora baina Euskal Herrian jaio zirenen artean nagusigoa nafarrek dute, seitik lau han jaio baitziren: jamartarrak eta achatarrak. Jamartarrak jatorriz Nagorekoak ziren eta adin nagusigoa bete eta berehala iritsi ziren Donostiara. Achatarrak ere garai bertsuan etorri ziren, baina Azuelotik. Beste biak, jatorriz bizkaitarrak ziren. Bata Joaquin Aznar *La Voz*-eko zuzendaria, Bilbotik Donostiara, eta Julian Salazar itsas merkataritzako kapitaina, Portugaletetik Pasaiara, nahiz eta bizia Pasaia eta Donostia artean egin zuen. Aipagarria agian Araban jaiotako inor ez dela agertu. Datu gehiagorik ezean, kasualitateari atxiki beharko zaio Gipuzkoa eta Arabaren arteko lotura falta hau.

Gipuzkoan jaio ziren errepublikanoen artean, eremua oso zabala da eta jatorriak oso ezberdinak, nahiz eta ikertu diren gehiengoa jaiotzez donostiarra izan. Gutxienez laurdena, 23, hiriburuan jaio ziren. Honek azalpen ezberdinak izan ditzake, baina nagusia agian, Donostiako errepublikanismoak probintzian izan zuen garrantzia azaltzeko balio du. Haez gain, Tolosan jaiotako zortzi zenbatu dira, zazpi Irunen eta bost Eibarren –horietako bat Elgetan–. Gainontzeko herrien artean azpimarragarriak agian Hondarribia eta Pasaia, hiru eta lau errepublikanoekin. Kostaldeko bi herri hauetan errepublikanoak egon zirela ikusi bada ere, probintzia mailan garrantzia handirik izan ez zutela argi xamar geratu da, nahiz eta errepublikano garrantzitsuenen jaioterriei dagokionean

23. Estatukoaren artean jatorri ezberdinak daude, tartean Logroño –2–, Burgos, Zamora, Leon, Tarragona, eta Andaluziako bat, Tomas Campos –ez da ziurra baina handik etorri zela pentsatzen da–. Beste bi nondik etorri ziren ez da jakin. Guztiak lan arloko arrazoiak izan zituzten Gipuzkoara etortzeko.

24. Hemen Jose Indarten jaiolekuari buruzko zalantza planteatu daiteke, Irunen bizi izan bazen ere, posible da Frantzian jaio izana.

pisua handia izan. Hau azalduko lukeen aldagaia, euren ofizioa izan daiteke eta horri eskerrak jaioterriarekin baino Donostiako politikagintzarekin lotura gehiago eraiki izana. Gipuzkoan errepublikanismoa beraz, ez zen hiriburuan ezagutu zen fenomenoa izan bakarrik, baizik eta probintzia mailakoa, jatorriak baieztatzen duen bezala.




Errepublikano hauek jaio ziren denbora tarteari dagokionean, grafikoak piramide itxura hartzen du. 1840 eta 1850. hamarkadak izan ziren jaiotza gehien ezagutu zituztenak, 17 eta 18 errepublikanorekin. Bi hamarkada hauetatik urrunduz joanez gero, garai zaharragoetan jaiotakoen kopurua kolpean jaisten da, eta garai berriagoei dagokionean, jaiotza datak modu apalagoan jaisten dira. Mendek aurrera egin ahala nabari den jaitsierak mende aldaketarekin batera poliki-poliki errepublikanismoa ezagutzen hasi zen gainbehera azalduko luke. Aipatu gainbehera batez ere Mundu Gerraren osteko denbora tarteaz azaltzeko erabili bada ere, ikusten denez, XX. mendean sartzerakoan, errepublikanoen erdiak 50 urtetik gora zituen, politikagintzatik urruntzen hasteko garaia, eta Unión Republicanaren edo Foru Ligaren testuingurua pasa eta sozialistekin elkartzen hasi zirenean, errepublikanoen bi herenak baino gehiagok zituen 50 urtetik gora. Hauek errepublikano historiko bezala kontsideratuta, *Iraultza* osteko garaiak, I. Errepublika eta Berrezarkuntzaren garairik gordinenak ezagutu zituzten, bai eta 1890 inguruan eman ziren errepublikanoen arteko zatiketak ere. Honek, euren politikagintzan eragin handia izan zuen. I. Errepublikaren porrotaren estigma bitzta osoan zehar garraiatu behar izan zuten eurekin, baina Estatukoek ez bezala, Euskal Herrikoek eta gipuzkoarrek, I. Errepublikaren porrotean baino gehiago erreparatu nahi izan zuten Gerra Karlistetan eta foruen galeran, karlistekiko kontrakotasunak gainontzekoa estali zezan saiatu zirelarik.

Errepublikano historiko haiek hala, Gerra Handia hasi zenean, gutxienez errepublikanoen hiru laurdenak 40 urtetik gora zituen. Beraz, mende aldaketarekin aurrez aipatzen zen generazio aldaketa hori, nolabait antzeman

zen baina generazio berrietan errepublikano gutxiago egon zirela ondorioztatu daiteke. Generazio berrien erdiak baino gehiagok ez zuten errepublikanismoa aukeratu. Bestalde aipatu, generazio berri horiek, teoria sozialisten eraginaren ondorioz eta masa herriarekin konektatzeko helburua jarraituz, arazo sozialekiko kezka handiagoa erakutsi zuten.

1868 eta 1923 bitartean Kongresura iritsi ziren guztiak 1851 aurretik jaio ziren. Zaharrena, Justo Maria Zavala zen, 1815ean jaioa; eta gazteena Francisco Zavala bergararra, 1851an jaioa. Gogoratu behar da, azken hau 1899an iritsi zela Gorteetara. Berrezarkuntza garaian Diputatu aukeratuak izan ziren 26tik 17, 1860 aurretik jaio ziren eta 6 besterik ez *Gloriosa*-ren ostean²⁵.

Amaitzeko esan, jaioterriaren eta adinaren arteko erlazioa buruztekorako orduan behin betiko ondorioak emateko adinako daturik ez dagoela. Donostiaren kasuan, errepublikano gehienak 1840 eta 1860.hamarkada artean jaio zirela ikusten da. Tolosan ere Donostiako antzeko joera nabari dela esan daiteke, nahiz eta hamarkada guztietan aurkitzen diren ia ordezkari errepublikano garrantzitsuak. Gainontzeko herriei dagokienean, laginak oso txikiak badira ere, eta Eibarren salbuespenarekin, errepublikanoak 1840tik aurrera jaio zirela iradoki daiteke. Irunen kasuan esaterako, nabaria da hori, guztiak aipatu hamarkadatik aurrera jaio baitziren. Datu hauek, errepublikanismoaren bilakaera ulertzen laguntzen dute, errepublikanismoa Donostia, Tolosa eta Eibarren jaio eta poliki-poliki gainontzeko herrietara zabaltzen hasi baitzen.



25. 3 diputatuen kasuan ez da jaiotza datarik lortu, Tomas Alberdi, Saturnino Lalanne eta Jose Indart. 1860an jaiotako 3 eta 1870.hamarkadan jaiotako beste hiru iritsi ziren diputaziora. Gogoratu behar da, diputatu gehien 1890 eta 1905 bitartean lortu zutela errepublikanoek. Erreferentzia bezala aipatu agian, 1891 eta 1914 bitartean iritsi ziren Euskal Herriko parlamentarien gehiengoa 1840 eta 1860 bitartean jaio zela, eta beraz, Madrilera iristen zirenen gehiengoa politikoko beteranoaren perfilean sartu daitekeela; AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba et al. "The MPs of the Basque Country: parliamentary practice (1891-1914)", *Parliaments, Estates & Representation*, 31/1.zkia (2011), 67-88.orr.

Beraz, Gipuzkoan ezagutu zen errepublikanismoa, euskalduna eta hein handi batean gipuzkoarra zela ikusi da. Jatorriak, zenbait ondorio iradoki ditzake, baina nagusia agian, probintzian errepublikanismoak izan zuen ezarpena azaltzen lagunduko luke, bertakoek aurrera eramandako prozesua izan baitzen ia bere osotasunean. Aldi berean noski, errepublikanoek euskara ezagutzea ere azaltzen du jatorriak. Adinari dagokionean, gehienak 1840 eta 1850.hamarkadetan jaio ziren. 1870etik aurrera errepublikanoen kopurua gutxitzen joan zen, oinordekotzarik gabe geratuz.

4. ERREPUBLIKANOEN FAMILIAK

Azpiatal honetan, azterketa prosopografikoa burutzeko aukeratu diren protagonisten inguru hurbila azaleratu nahi da. Helburua, errepublikano izan ziren hauek zein familia motatan eta ze girotan jaio eta hazi ziren ondorioztatzea da. Biografiak eraiki direnen gurasoen datuetatik abiatuz, aipatu testuinguru sozial, ekonomiko eta politikoa eraiki nahi da, ondoren, protagonisten datuekin alderatzeko. Modu honetara, gurasoen eta protagonisten arteko harremanak zenbateraino estutzen diren ikusiko da, ea lanbideak jarraipenik izan zuten, egoera sozio-ekonomikoa mantentzerik lortu, edo hobera edo okerrera egin zuten eta bilakaera politikoan gurasoen ideologiak zenbaterainoko garrantzia eduki zuten²⁶.

Lortu nahi den helburuak ordea zailtasun ikaragarria duela ere kontziente gara, izan ere, kasu askotan biografiatutako pertsonaiei buruzko informazioa lortzea oso zaila izan bada, euren guraso eta familiei buruzkoak lortzea oraindik eta zailagoa suertatu da. Gutxi batzuetan datu zehatza jaso da; beste batzuetan iturri ezberdinek zantzu argiak utzi dituzte; gehienetan ordea, edo gurasoei buruzko informazioa suposizioetan oinarritu da edo zuzenean daturik ez da topatu. Gipuzkoatik kanpora jaio zirenen inguruan informazioa lortzea ia erabat ezinezkoa izan da oraingoz. Aipatu behar da, maila sozio-ekonomikoan behera egin ahala, lortutako informazioa ere asko murriztu dela²⁷.

Gauzak horrela, protagonisten gurasoen ia herenak –60– zer lanbide edo ofizio izan zuen ez dela jakin kontuan hartuta, arlo profesionalean era guztietako ofizioak zituztela ikusi daiteke. Nagusigoa agian, probintziako merkatari handiek eta industrialariak izan zuten. Bi ofizio hauek askotan elkar nahasten ziren, arlo ezberdinetan negozioak izan baitzituzten. Adibiderik garbienenarikoa Juan Jamarren aita eta probintziako errepublikanismoaren buruetako bat izan zen Benito Jamar izan daiteke. Echeverriatarren merkatari etxean lanean hasi ostean, geroago ikusiko denez, hainbat arlotan nabarmendu zen. Echeverriatarren merkatal ordezkaria izan zen eta Fagoagatarren barril

26. Boterea lortu edo gutxienez elitearen parte izaten jarraitzeko estrategien inguruan gehiago jakiteko baliagarria izan daiteke, besteak beste, MARTINEZ RUEDA, Fernando eta URQUIJO GOITIA, Mikel. "Estrategias familiares y poder", *Boletín de la Asociación de Democracia Histórica*, XII/2-3 (1994), 79-92.orr.

27. Protagonistek buruzko beste datu aipagarri bat agian, 85 errepublikanotik gutxienez 54 ezkondu egin ziren.

fabrikako ordezkaria ere bai. Obrak egiteko lantegi bat ere izan zuen besteak beste eta nola ez, 1896tik aurrera *La Voz de Guipúzcoa* enpresaren akzionista nagusia berau izan zen. Enpresa eta industria ezberdinak zituzten familietan jaio zirenen artean adibide bezala erabili daitezke iruretagoyenatarrak, komisio etxe bat zuten gurasoek Irungo aduanan, lalannetarrak, besteak beste pospolo fabrika bat Irundik hurbil, edo brunet familiakoak, probintzia guztian hainbat eta hainbat lantegi eraiki eta beste hainbatetan parte hartzeak izan zituzten²⁸. Gehienak probintziako industria ertain eta handien inguruan mugitu ziren.

Gainontzeko ofizioen artean aipagarrienak agian, ofizio liberalak deiturikoak izan daitezke, arkitekto, botikari eta medikuak. Aipagarria da gutxienez hiru errepublikano mediku familietan jaio zirela, Acha anaiak eta Eibarko aipatu Ciriaco Aguirre, eta eurak ere mediku ofizioan jardun zutela, probintzia mailan ezagunak bihurtuz. Arkitekto eta botikariekin ere gauza berbera gertatu zela ikusi da, alegia, aitaren ofizioa jarraitu zutela semeek. Merkatari txikiek ere beste horrenbeste egin zuten. Hemen aipatu agian, Nerecan familiak izan zuen idazmahaiko objektuen denda, Lopetegui "Txiplau" bertsolariaren aitaren mandatarari lana²⁹, edota Ponsol familiaren Donostiako Narrika kaleko txapel denda famatua, oraindik zutik mantentzen den Euskal Herriko zaharrenetarikoa. Agapito Ponsol bere aitaren ofizioa jarraituz eta txapelak egin eta saltzen aritu zen bitzta osoan zehar: «*Agapito parecía un escultor. Y en verdad esculpía la gracia y el garbo de la boina donostiarra sobre la cabeza menos propicia*»³⁰. Ezkonduta egon bazen ere, seme alabarik ez zuen izan eta negozioa Belgikatik lanera etorri zen Jose Luis Leclerq errepublikanoari pasa zioen. Honek negozioaren izena mantentzen jarraitu zuen. Lanbide zehatzari buruzko informazio askorik ez bada ere, protagonistek euren izan zituzten ikasketa edo lanbideei erreparatuta, autoreak beste ondorio bat atera du: gurasoen daturik ez dagoen 60 protagonistetatik gutxienez 40, klase ertain edo altuko familietan jaio zirela, baliabide ekonomiko, sozial eta politiko ertain eta handiekin.

Protagonisten ideologiari dagokionean, datu eskasia berdintsua dela esan daiteke. Hala ere ikuspegi orokor bat lortzeko adinakoa izan daitekeela uste du autoreak. Alde batetik, ikusi den eran, informazioa lortu den kasuetan, familiako ofizioa Gipuzkoaren industrializazioarekin edo ofizio liberalekin lotutakoa da gehienbat. Probintziaren modernizatorako garrantzitsuak izan ziren ofizioak izan zirela esan daiteke beraz eta horrek, familiaren ideologiaren berri ere eman dezake hain batean. Orokorrean, jatorri ideologiko liberala izan zutela esan daiteke. Gutxienez 15 familia liberalismoaren barneko korrante

28. Hemen errepublikano bezala aztertu diren brunetarrak, Jose Maria Brunet, Pedro Brunet, Benjamin Brunet eta Tomas Bermingham Brunet izan dira. Lehendabiziko hiruak gainera, *La Voz*-en akzionistak izan ziren.

29. Lopetegui aitak dirudienek idiz bultzatutako galdi bat zeukan, zeinekin Irun eta inguruetan garraio lanak egiten aritu zen. Pio Bizcarrondoren aita, *Bilintx*, Donostiako antzokiko zaindaria zen, bertsolaria izateaz gain. Mariano Salaverriaren aita bestalde, farozaina zen, eta Estatuko kostako herri ezberdinetan lanean aritu ostean itzuli zen berriro Donostiara.

30. AROZAMENA, Jesus M^a. *Donostia, Capital de San Sebastian*, Donostia: Auñamendi, 1964, 152.or.

ezberdinetan sartuko genituzke. Berriro ere brunetarrak adibide izan daitezke hemen, monarkiko eta errepublikanoen artean banatuta bazeuden ere, guztiak aipatu liberalismoreen barnean mugitu baitziren. Ezin ahaztu, datua erabat argigarria ez den arren, gutxienez bostek aita errepublikanoa izan zutela.

Oinordekotasun harremanez gain, familia zehatz batzuek Gipuzkoan errepublikanismoaren baitan izan zuten garrantzia zenbaterainokoa izan zen ikustea garrantzitsua da, gidaritza politikoa gutxi batzuen eraginpean egon zen edo ez ikusteko. Biografiak egin zaizkien protagonisten artean 29 izan dira nolabait Gipuzkoako errepublikanismoarekin zerikusia izan zuten familiekin harremana izan zutenak. Aurrez aipatu diren Jamar eta Brunet familien garrantzia tesi osoan zehar ikusi da. Azken familia hau gainera oso zabala izan zen eta hainbat lotura ezberdin izan zituen gainontzeko protagonistekin. Bat aipatzearen esaterako Ines Brunet, Andres Egoscozabal ordiziar abokatu, udaleko idazkari, *La Fraternidad* egunkariaren sortzaile eta Brunet y Cia Bankuko gerentearekin ezkondu zen.

Bi familia nagusi hauez gain, beste batzuk ere gogoratu daitezke. Eibarko Aguirre medikuak, Justo aita, Eibarko Paktu federalean presente egon zena eta Ciriaco semea, udaleko medikua izandakoa, Eibarko Unión Republicanaren eta kasinoaren zuzendaritzan egondakoa. Ramon eta Juan Usabiaga, aita semeak. Ordizian jaioa lehendabizikoa, botikaria eta irakaslea, Gipuzkoako botikarien eskola ofizialaren sortzailea, diputatua eta zinegotzia. Juan semea, Donostian eta Ordizia artean bizi izan zena Madrileran joan aurretik, "Tximista" ezizenez ezaguna, zenbait industria sortzeko saiakerak burutu zituen eta 1935ean Nekazaritza, Industria eta Merkataritza ministro izendatu zuten. Honen ama eta Ramonen emaztea, Lasquibar anaien familiakoa zen. Horietako bat, Luis, Azpeitia eta Deba artean bizi izan zena, Gipuzkoako diputatu izatera iritsi zen. Beste adibide bat Nemesio eta Alfredo Barrio aita semeak izan daitezke. Aita, 1870eko Donostiako komite errepublikanoko kidea, udaleko arkitektoa eta bestea bestek Polloeko kanposantua egitearen arduraduna izan zena eta semea, Alfredo Barrio, kazetaria, *La Voz*-eko zuzendaria eta gazte errepublikanoen sortzaileetako bat izan zena³¹.

Aita-seme erlazioaz haratago, anaia errepublikanoen arteko familia sareak ere oso ohikoak izan ziren gipuzkoar errepublikanismoaren baitan. Acha anaia medikuak, Victor zaharrena, Donostian kontsulta ireki eta anaia gaztea, Tomas, hartu zuena; Donostiako zinegotzi izatera iritsi ziren biak. Aristizabal anaiak, Galo Maria eta Jose Maria; lehendabizikoa medikua eta irakaslea, Donostiako Partidu Errepublikanoaren sortzailea -1885- eta bigarrena, Donostiako I. Errepublika garaiko alkate famatua. Irungo Iruretagoyena anaiak, Juan Jose eta Leon, Gipuzkoako diputatua zaharrena, Circulo de Recreoren sortzailea, eta Leon gazteagoa, Irungo alkate ezaguna. Azken honen alaba bat, Julia Iruretagoyena Tomas Meabe sozialista ezagunarekin ezkondu zen. Hondarribian jaio baina Irungo errepublikanismoaren bilakaeran berebiziko garrantzia izan zuen Fernando Torralba errepublikano federala, trenbide erreklamazio agentzia

31. Nahiz eta Barrio abizenez ezagutu, ofizialki Barriocanal abizena zeukaten.

baten burua eta Irungo Partidu Errepublikanoaren presidentea –1885–, eta bere anaia, Ricardo Torralba, errepublikanoa baita, 1893an Unión Republicanaren zerrendan Leridatik Gorteetarako hauteskundetara hautagai izan zena. Eta Laborda anaia hondarribiarrak. Felix, diputatua eta Hondarribiko alkatea izan zen eta Saturnino Lalanneren alaba Mercedesekin ezkondu zen. Felix bezala, anaia Olegario ere Hondarribiko alkate izan zen³².

Aurkitu diren datuen arabera perfila irudikatu nahi bada, Gipuzkoan errepublikanismoaren zati handi bat, zuzendaritzaren gehiengoa, klase ertain edo goi mailako familietan jaiotakoa izan zela esan daiteke, aukera sozial, ekonomiko eta politiko garrantzitsuekin. Eta familiek zuzenean politikagintzan eragin handiegirik izan ez bazuten ere, ikusi denez, herena baino gehiagok errepublikanismoarekin zerikusia zuen familiarteko erlazioa mantendu zuten. Brunet eta Jamar familien kasuan, edo Echeverriatarrean, probintziako bilakaeran zeresana emateko gaitasuna izan zuten familiok, hauteskunde ezberdinetan ikusi den moduan edo *La Voz*-ek izan zuten garrantzia azpimarratu denean. Besteetan, aita-semeen arteko harremana edota anaiartekotasunak bere garrantzia izan zuela ere ezin ahaztu daiteke. Ciriaco Aguirre Eibarko Partiduko zuzendaritzakoa eta Eibarko paktuan izan zuten aita, Ramon Usabiaga *La Voz*-en sortzailea eta haren semea, edota Acha anaiak eta Laborda hondarribiarrak, gazteek zaharrenaren lekua hartu baitzuten bi lekuetan, batak Donostiako partiduan eta besteak Hondarribiako udaletxean. Ez dugu esango beraz, errepublikanismoa familia gutxi batzuen artean osatua egon zenik ez eta familia zehatz bateko kide izateak errepublikanismoaren barnean ezer ziurtatzen zuenik –Juan Jose Iruretagoyenak izan zituen 12 seme alabetatik adibidez ez da garai honetan inor aurkitu politikagintzan zeresan berezirik eman zuenik–, baina aita, anaia edo osaba errepublikanoen zuzendaritzan egoteak gainontzekoek ere bide hori jarraitzeko zerikusi handia izan zuela esan daiteke, hemen aztertu diren herenek adierazi dutenez. Beraz, familia sareak errepublikanoen artean ere funtzionatu zutela diosku datu honek, ez ezaugarri definitibo legez baina bai politikagintza zuzentzeko lagungarri bezala.

5. FORMAZIOA

Azpi atal honetan, biografiak sortu diren 85 errepublikanoek zer nolako formazioa izan zuten azaleratu nahi da, formazioak errepublikanismoaren kide eta zuzendaritzarekin zenbaterainoko erlazioa izan zuten jakiteko. Atal hau egiteko ez da azterketa oso zehatza egin, ez da probintzian egon ziren institutu eta eskola ezberdinetatik igaro, baina lortu den informazioak ikuspegi orokor bat emateko balio duelakoan dago autorea. Errepublikano askok eskola eta antzekoetatik kanpo ere beste era bateko formazioa jaso zuten. Aurrez ikusi ditugun pertsonaia batzuk izan daitezke horren adibide. 85etik zazpi gutxienez euren ofizioak egunerokotasunean ikasi zituzten, tartean aipatu Ponsol txapelgilea, Victoriano Iraola pasaiatar litografoa edota Carasa

32. Bestalde, aipagarria baita Tomas Berminghamen ama, Emilia Brunet senarra hil ostean Tomas Balbas probintziako liberal ezagunarekin batu izana.

jostuna, lantegi txiki bat zuena. Hauez gain, nahiz eta zenbatzerako orduan Tomas Echaluze, Antonio Iturrioz eta Pedro Sarasqueta bakarrik kontuan hartu, Eibarren armagintza sektorearekin lanean jardun zuten ia eibartar guztiek – eta hauen artean errepublikanoek– jaso zuten ofizio formazioa kontutan hartu behar da, tailer txikiez osatutako herrian, gehienek maisu baten pean ikasi baitzuten, 1912an Armeria Eskola ireki zuten arte. Formazio tradizionala litzateke hauena beraz, langileez osatutako gizarte edo testuinguruetan ohikoena izan zena. Errepublikanismoak, halako eremuetan ezarpen handia izan zuela ondorioztatzeko ere balio du eta hain zuzen ere, eremu hauek izan ziren gero sozialismoa indartsuen agertu ziren lekuak.

Zazpi horien artean zenbatu ez direnak baina hala ere nolabaiteko formakuntza jaso zuten beste 14 errepublikano ere agertu dira. Hamalauko talde honetan, merkataritza eta industriari lotutako lanbideak ikasi zituztenak dira gehienak, edo familiako negozioak zituztelako edota Jamar anaiak bezala merkataritza eta industria gizon baten etxean lanean hasi eta azkenean euren ofizio propioa aurkitu zituztelako. Jamar anaiez gain, Iruretagoyena anaiek formazioa merkataritzaren arloan jaso zuten³³, edota Jose Boada eta Lopetegui irundarrek eta Felix Blanco pasaiatarrek ofizioak ikasi zituzten. Eibarren armagintzarekin gertatu zen bezala, Irunen merkataritza sektorearekin antzekoa gertatu zen, gehiengo handi batek horri bideratutako formazioa jaso baitzuen. Hauez gain, ze motatako formazio jaso zuten jakin ez den arren, nolabaiteko hezkuntza bat jaso zutela ziurra den errepublikano asko daude, esate baterako, *La Voz*-en zuzendariak. Beste mota bateko ikasketak jaso zituztenak ere badira, adibidez, Fermin Francisco Barech donostiarra eta *La Voz*-en sortzaileak musika kontserbatorioan burutu zituen biolin ikasketak, edota Julian Salazar portugetarrek itsas eskolan atera zuen kapitain titulua.

Azkenik, aztertu diren errepublikanoen sektore handienak unibertsitateko titulua edo baliokidea –ingenieria esaterako– jaso edo gutxienez lortzeko saiakera egin zuela ikusi da. Guztira 35 izan ziren goi mailako ikasketak burutu zituztenak. Kopurua uste baino handiagoa da, ia erdiak baitira hauek, eta are gehiago, Bilboko kopurua baino handiagoa denean –27–³⁴. 35 horietatik zuzenbidea izan zen ohiko ikasketa, 12 errepublikanok hala egin baitzuten, eta ondoren medikuntza, 9 izan baitziren mediku izateko prestatu zirenak. Hauen ostean, botikari izateko ikasketak –4–, ingeniariak –4– eta filosofia eta letrak³⁵ ikasi zituztenak –3– izan ziren nagusi. Hain arruntak ez ziren beste ikasketen artean, arkitekto bat eta zientzia ekonomikoak ikasi zituen bat nabarmendu daitezke. Aipagarria da baita, hiru errepublikanok bi titulu izan zituztela, zuzenbidea eta filosofia eta letretan lizentziatu baitziren. Eta are aipagarriagoa agian, doktoretza titulua atera zutela lauk, hiruk medikuntzan eta batek Filosofia eta letretan, Luis Castro Casal tolosarrak, “Estudio histórico crítico de

33. Juan Jose Iruretagoyenak gainera, II. Gerra Karlistan boluntarioen gudarostean alferiz titulua lortu zuen.

34. PENCHE GONZALEZ, Jon. *Republicanos en Bilbao*, Bilbo: UPV/EHU, 2010.


35. Beste batek, Ramon Fernandezek Gizarte Zientziak eta literatura ikasi zuela agertu zaigu. Ez da filosofia eta letrak atalean zenbatu.

la constitución del Reino de Aragón” tesiarekin. Unibertsitate ikasketak, aurrez aipatu diren Valladolid, Zaragoza eta Madrilgo Unibertsitate Zentralean egitea izan zen ohikoena, nahiz eta Ramon Fernandez edota Tomas Berminghamen kasuan, Estatuan jasotako formazioa nazioartean egindakoekin osatu zuten. Hauek bia esaterako, Londresen egon ziren.

Gipuzkoar errepublikanoek beraz formazio maila altua izan zutela ikusi daiteke eta hein handi batean, honek azalduko luke azertu den tarte kronologiko osoan zehar hezkuntzarekiko eta eskolaratzearekiko erakutsi zuten kezka etengabea, hezkuntza egoki batek gizakia askatuko zuela sinetsia baitzuten. Gipuzkoan ireki edo ireki nahi izan zituzten eskola ezberdinak ere kezka honekin lotuta daude.

Bestalde, formazioa jaso izanaren eta errepublikanismoaren zuzendaritzan egotearen arteko harremana ia zuzena da. Hemen azertu diren 85 kideak nola edo hala, errepublikanismoaren bilakaeran eragina izan zutela esan da, askok, zuzenean politikagintzan parte hartu zutelako eta ikusi denez, bi herenek modu bateko edo besteko heziketa jaso zuten. Ofizioen bat ikasi zuten 7 errepublikanotik 6 kidek partidu edo kasinoren baten zuzendaritzan parte hartu zuten³⁶; beste mota bateko ikasketak burutu zituzten 14 kideetatik gutxienez 10 aurkitu daitezke momenturen batean edo bestean partidu edota kasinoren baten zuzendaritzan; eta azkenik, unibertsitatetik pasa ziren 35 errepublikanotik gutxienez 25ek euren herrietako partidu edota kasinoak zuzendu zituzten. Gainera, 25 horietatik gutxienez 13, Gipuzkoako diputazioan parte hartzera iritsi ziren. Eta azkenik, Gipuzkoan jaio eta Kongresura iritsi ziren bost hautagaietatik lauk unibertsitate mailako ikasketak izan zituzten eta bosgarrenak, Ignacio Ibarzabalek, kontratista ofizioa eta arma lantegi bat zituenak, nolabaiteko formazioa jaso zuela iradokitzen du. Joera hau, Donostian baino gehiago probintziako gainontzeko herrietan hobeto nabari da, urte askotan Tolosako errepublikanoen buruzagia izan zen Luis Castro Casalek, Azpeitiko Liberal komite zuzendu zuen Jose Leon Urquiolak edo Eibarko Iturrioz edota Ciriaco Aguirrek erakusten duten moduan.

Grafikoa 3. Errepublikanoen formazioa eta zuzendaritza



36. Zazpigarrena Germaniarzaleen aurkako Ligako zuzendaritzan egon zen.

Egia da baita, ikasketarik ez zutenek zuzendaritzan parte hartzeko aukerak izan bazutela, baina batez ere Donostiatik kanpora, errepublikanoen artean ikasketak zituztenen kopurua Donostian baino txikiagoa izan baitzen.

Beraz, errepublikanismoaren zuzendaritzan parte hartzeko ikasketak edukitzea ezinbestekoa zela esatea okerreko ikuspuntua ematea izango litzatekeen bezala, ikasketak burutu zituzten asko eta askok probintziako errepublikanismoa zuzentzen amaitu zutela esatea egokia da. Ezin ahaztu daiteke, ikasketak edukitzeak berak ematen zien gaitasun intelektualaz gain, eragin gehiago izan zezaketen familietan jaio izana ere adierazten duela, edonork ez baitzuen bere semeari ikasketak emateko aukera³⁷.

6. OFIZIOA, LANBIDEA ETA JARDUERA EKONOMIKOA

Laugarren azpiatal honetan, ikertu diren 85 errepublikanoek izan zuten lanbide edo ofizioa azalera nahi da, euren izaera sozio-ekonomikoak politikagintzarekin zenbaterainoko garrantzia izan zuen ikusteko. Aurreko ataletan ikusi dena kontutan hartuz, alegia euren testuinguru hurbila –familia– eta ikasketak, gizarte maila ertain eta altuko jendea izan zela ondorioztatu da eta beraz, izan zituzten lanbideek ere norabide hori markatuko dutela aurreikusi daiteke.

85 biografiatuetatik hamaikak zein lanbide izan zuten jakin ez dela kontuan hartuta, errepublikanoek gehien bete zituzten ofizioak lanbide liberalerik zuzendutakoak izan ziren, guztira gutxienez 29 errepublikanoek –%34– bideratu baitzuten euren bizitza alor horretara. Lanbide liberalen artean, mota ezberdinetakoak aurkitu daitezke baina kazetaritza munduan aritu zirenen kopurua guztien gainetik nabarmentzen da. 9 izan ziren egunkarietan lan egin zuten biografiatutako errepublikanoak, gehienak *La Voz*-en bulegoetan, euren zuzendariak izan ziren Eduardo de la Peña, Angel Maria Castell, Adrian Navas, Alfredo Barrio, Joaquin Aznar eta Isaac Abeytua kasu. Baina kazetari guztiak ez ziren *La Voz*-ekin lotuta egon, aurrez aipatu den Francisco Bellido hondarribiarrak adibidez, 18-19 urte besterik ez zituela *La Frontera* egunkaria sortu zuen Irunen, nahiz eta legalki sortzaileen artean bere izenik agertu ezin zitekeen. Multzo honetan sartu dira baita Mariano Salaverria eta Tomas Echaluze ere. Salaverriak ez dakigu zehatz mehatz zein ofizio zuen, baina *La Voz*-en idazten zituen kronikak eta kaleratu zituen liburuak izan ziren bere egiteko nagusia. Gipuzkoako prentsa elkarteetan parte hartzeak kazetaritzarekin erlazionatutako ofizioa zuela ziurtatzen du. Echeluceren kasua bereziagoa da. Eibarren tailer mekaniko txiki baten jabea zen eta aldi berean *La Voz*-eko berriemailea ere bai. Ez da jakin berriemaileek zenbat diru irabazi zezaketen, baina diru iturri nagusia tailer mekanikoa zela pentsatzen bada ere, politikagintzan sartzeko berriemaile izatea funtsezkoa izan zitzaion.

37. Autoreak horretarako datu zehatzik ez badu ere, ikertu diren 85 kideen ehuneko ehunak irakurtzen eta idazten zekiela ondorioztatu da. Ondorio hau babesten duen zantzueta bat, nolabaiteko formazioa jaso zutenen kopuru altuaz gain, gutxienez erdiak prentsan kolaborazioen bat edo beste kaleratu izana da. Hau gutxi balitz, 32 errepublikanoek nolabaiteko liburu edo idazkiak kaleratu zituzten 1923 aurretik.

Kazetaritza lanbidearekin amaitzeko aipatu nahi da, Donostiako prentsa errepublikanoa garrantzitsuenaren zuzendaritza, *La Voz* edota *La Libertad* egunkariena, 1923ra arte ia erabat kanpoko jendearen eskutan egon zela. Alfredo Barrio deskribatu zuten lehendabiziko donostiar kazetari profesional bezala, edo gutxienez urte bete baino gehiagoz *La Voz* zuzendu zuten lehendabiziko donostiar bezala. De la Peña Logroño inguruan jaio eta Madrildik ekarri zuten, Angel Castell ere Burgosen jaio arren Madrildik ekarri zuten; Adrian Navas Zamoran jaio zen, ofizioz abokatu eta merkataritzarekin erlacionatutako lanak burutu zituen aurrez Madril eta Irunen; Joaquin Aznar Bilbotik ekarri zuten eta Isaac Abeytua Logroñon jaio arren Madrildik ekarri zuten. Honek Gipuzkoan kazetaritza munduaren egoera deskribatzeko ere balio dezake. Probintzian egunkari errepublikanoetan lan egin zutenen gehiengoak beste lanbide edo ikasketa batzuk zituen baina arrazoi ezberdinengatik kazetari lanetan amaitu zuten; ez ziren profesionalak izan beraz. Profesionalek zuzendaritza postuak bete zituzten eta ez ziren gipuzkoarrak izan –Euskal Herrikoa ere bakarra–. Askokostatu zitzaion gipuzkoar kazetaritzari –egunkari errepublikanoei gutxienez 3 hamarkada– gipuzkoarrak ziren kide gaituak aurkitzea.

Gainontzeko lanbide liberalerik dagokienean, abokatuak eta irakasleak izan ziren nagusienak, bost eta sei errepublikanoekin³⁸. Irakasleei dagokienean, Angel Digonen kasu berezia aipatu nahi da. Jatorriz nongoa zen ez da jakin, espainiarra zela bakarrik, eta politikagintzan XIX.mendearen azken urteetan agertu zen, Fusión Republicanaren testuinguruan. Mundu Gerra arte bizi izan zen Gipuzkoan eta ondoren Aragoi aldera joan zen. Gipuzkoan igaro zituen urteetan, irakaskuntzan aritzeaz gain, partidu federalaren eta kasino errepublikanoaren zuzendaritzan agertu zen. Baina bitxienean agian, ofizioz «*pastor protestante*» izan zela da. Ez dakigu ikasketak non burutu zituen baina errepublikanoen artean agertzen den kasurik berezietarikoa izan daitekeela pentsatzen da, apaiza izateaz gain, ez baitzen katolikoa. Bestalde, errepublikano gutxiago bideratu ziren botikari lanerata –1–, arkitekturara –1– edota argazkilaritzara³⁹.

Lanbide liberalak alde batera utziaz, gehien agertu diren ofizioak industriari eta merkataritzari lotutakoak izan ziren. XIX.mendearen bigarren erdialdean poliki-poliki ernaltzen joan zen industrializazioaren barnean, biografiatu diren 13 errepublikanoek nolabaiteko harremana izan zuten enpresa munduarekin. Enpresa jabeak edo enpresetako akzioen jabeak izan ziren eta enpresak sortzen lagundu eta enpresotan postu garrantzitsuak bete zituzten. Aipatu denez ez ziren Bizkaialdean sortzen ari ziren tamainako enpresak izan Gipuzkoan altxatu zirenak, baina probintziako testuinguruan enpresa handi, ertain eta txiki bezala

38. Irakasleei dagokienean, errepublikanismoaren bilakaeran izan zuten garrantzia azaldu nahi da. Informazio gutxi jaso bada ere, Forcadaren kasuan ikusi den bezala, urte gutxitan probintziako politikagintzan zeresan handia eman zuten. Bestalde, Joxan Elosegui Joxe Mari Lopetegui eskaini zion aitzin solaseko biografia laburrean, Lopetegui errepublikanismoa bideratu izanaren errudun nagusia, Bellido eta Leon Iruretagoyenarekin batera, bere irakaslea “Maestro” Campos edo Tomas Campos izan zela iradoki zuten; ELOSEGI, Joxan (ed.). *Joxe Mari Lopetegui... op.cit.*,13-14.orr.

39. Argazkilaritza ofizio modernoa zela ere azpimarratu nahi da, eta Ducloux, Donostiako argazkilarik garrantzitsuenen bihurtu zela.

sailkatu daitezke. Handi eta ertainekin lotuta egon zirenen adibide batzuk: Leandro Uranga antzuolarra esaterako Errenterian Papelera Vasco-Belgakoa; ikusi denez Francisco Gascuek beste hainbat enpresen artean Real Compañía Asturianaren lantegiko zuzendaritza eraman zuen Gipuzkoan, Saturnino Lalanne irundarra, pospolo lantegi bat izateaz gain, ardo eta ultramarinoen biltoki bateko gerentea izan zen; Tomas Bermingham beste gauza askoren artean Irunen bulegoa zuen Spanish Hematite Iron Company Limited-eko presidentea izan zen; Ramon Fernandez pasaiatarra Donostia eta Andoaingo ehungintza sektoreko zenbait enpresako zuzendaria izan zen; Blas Irazustak Tolosan papergintzari lotutako enpresa bat izan zuen; Ignacio Ibarzabalek, Gorteetako diputatuak, arma lantegi bat zuen Eibarren eta horrez gain obra kontratatzaile bezala ere jardun zuen; Francisco Goitia mota ezberdinetako enpresen zuzendaritza egon zen; Leon Iruetagoienak beste zenbait gauzen artean 120 laguneko zerrategi bat izan zuen –erre egin zitzaiona–; Jose Brunetek bere osabarekin Orion oihalgintza enpresan lan egin zuen, eta Ramon Usabiagak besteak beste torloju lantegi bat ireki zuen Ordizian⁴⁰.

Merkataritzari dagokionean, merkatari handien eta merkatari ertain eta txikien arteko banaketa egin da. Merkatari handien artean, mota guztietako gaiekin negozioak egiten zituztenak baina batez ere banka sektorean lan egin zutenak sartu dira, guztira 5. Hauen artean nabarmentzekoak, Feliciano Echeverria merkataria, Paulino Ynciarde Banco Guipuzcoanoko administrazio kontseiluko kidea, Tomas Mugica edota Donostiako Aurrezki Kutxako zuzendaria. Jamar anaiak, industria sektorean edo merkataritza arloan sartu genitzake, Echeverriarrentzat lanean hasi baitziren haien enpresen ordezkari bezala eta ondoren zenbait merkatal negozio eta enpresa ireki baitzituzten. Merkatari txikien artean, aurrez aipatu Iruetagoiena anaiak Komisio etxe batean jaio baitziren, Jose Trecu dendaria, Ponsol txapelgilea, Julian Salazar Itsas artekaria, Pedro Nerecan idazmahaiko tresnak saltzeko dendaren jabea edota Gregorio Irastorza tolosarrak eduki zuen kafetegia. Ikusi daitekeen moduan, merkatarien artean bada alde nabarmenik, Irastorzak eduki zuen kafetegiaren –aurrez kasino errepublikanoko atezaina izan zen– eta Banco Guipuzcoanoko zuzendaritza lanean egon zenaren artean.

Gainontzeko ofizioei dagokienean, funtzionarioak 7 zenbatu dira, Jose Indart Gipuzkoako laboratorio kimikoaren zuzendaria, Tadeo Camino Irungo udaleko eta hospitaleko botikaria edota Jose Maria Garcia Alvarez, Gipuzkoako Institutuko katedraduna, adibide. Langile soilen edo kualifikatuen artean ere beste 5 kontatu dira. Horien artean adibidez, aipatu Vitoriano Iraola litografoa eta Jose Mari Lopetegui igeltseroa, Felix Blanco telegrafoan eta Irungo aduanan langile izandakoa, edota Irunen bere kronikengatik ezaguna egin zen Jose Boada «langilea». Haez gain, Agustin Vergararen kasua ere aipatu nahi

40. Probintziako industria sektorean parte hartu zuten errepublikanoen berri zehatza eskaini zuen bere garaian Luis Castellsek. Beste askoren artean aipatu adibidez, besteak beste Tomas Bermingham, Ramon Usabiaga eta Tomas Acha errepublikanoek eta Tomas Balbas, Leonardo Moyua eta Jose Gaytan de Ayala monarkikoen 1902an sortu zuten Danak Bat kooperatiba. Halako harremanak ugari izan ziren, eta hein batean, errepublikano otzanen eta monarkikoen arteko harreman politikoak ulertzeko balio izan dezakete.

da. Urte askotan *La Voz*-eko gerentea izan zena, 1896an *La Voz*-en enpresaren kapitala handitu zenean «*empleado*» bezala bost akzio erosi zituen. Amaitzeko, artisauen artean sartu dira Antonio Iturrioz eibartarra, arma tailer txiki bat zuena eta Tomas Carasa, jostun tailer bat zuena⁴¹.

Baina errepublikano hauetako batzuk, euren ofizioaz gain beste jarduera ekonomiko batzuetan parte hartzeko aukera ere izan zuten. Egia da gehiengo batek ez zuela euren ofizioaz gaindikoa jarduera aipagarrikeri eduki -32- eta hauei informaziorik lortu ez den beste 10 errepublikanoren egoera gehituz gero, guztira ia erdiak izan zirela konturatuko da. Jarduera ekonomiko edo inbertitzaile aipagarriak izan zituztenen artean, 18 industria edo enpresa munduarekin lotuta agertu dira. Guztiak, goi mailako gizarte klaseetan sailkatu ditzakegun errepublikanoak izan zirela esan daiteke, eta batez ere probintzian inbertitu zuten. Inbertsio horiek, sektore ekonomiko ezberdinetan burutu zituzten, finantza, merkataritza, garraio, elektrizitate mehatze, eraikuntza eta industrian. Ez dago patroiz zehatz bat, sektore edo ikasketa konkretu bat jarraitu zutenek erakutsi zuten inbertitzeko joeraren inguruan, adibide hauek erakusten duten moduan.

Aipatu Goitia esaterako, Nafarroako San Miguel de Arruiz lantegiko parte bat izan zuena, 1892an Compañía de Asfaltos de Maeztu sozietate anonimoko akzionista⁴² edota Goitia y Compañía enpresaren buruetako bat izan zen besteak beste 1885ean Antiguora ur edangarria eramateaz arduratu zena edota Zurriolako pasealekuan 1886an sei kandelabruak ezartzeko ardura izan zuena. Sociedad La Maquinista Guipuzcoana metalgintza enpresaz ere, Goitia administrazio kontseiluko presidentea izan zen. 1891an sortutako La Prudencia mehatze enpresan ere agertzen da Goitia, Benito Jamar, Fausto Echeverria, Ramon Usabiaga edota Rocaverdeko markesarekin batea. Francisco Gascue ere arlo ezberdinetan agertu da. 1899an Escola (?) izeneko sozietate anonimoa sortu zuen tartean Tomas Berminghamekin batera. Berun lantegiko Real Compañía Asturiana de Minas-eko ordezkaria izan zen Gipuzkoan, Electrica de San Sebastianen eta Hidroelectrica Sumbillan parte izan zuen bai eta Sociedad Española de Piedra, Vidrio y Construcciones Garcheyn ere. Pio Bizcarrondo, Bilintxen semea, Donostiako bankuan agertzen da, bai eta Sociedad Mercantil C. Gonzalez y C^a edo Sociedad Bizcarrondo y Cia-n ere -1904an sortua-. Benito Jamarrek berak, Pasaiko Portuan -anaiak bezala-, aipatu La Prudencian eta La Maquinista Guipuzcoanan, Blake and C. edota Mutiozabal, Arin y C^a enpresetan inbertitu zuen besteak beste, eta Fagoaga y C^a Fausto Echeverriaren enpresaren zatia ere izan zuen. Bestalde, Joaquinekin batera Jamar, Zabala y C^a enpresa ireki zuten, emaitza txarrak ekarri zizkiena. Amaitzeko, Ramon Usabiaga aipatu daiteke, zeinak inbertsioak egin zituen besteak beste, Gipuzkoako Bankuan, Pasaiko Portuan, C^a del Ferrocarril a


41. Beste zenbait ere sartu zitezkeen artisau ofizioan, aurrez aipatu den Ponsol esaterako, baina denda bat edukitzeak merkatarien artean sartzera bultzatu du autorea. Hauxe gain, mota ezberdinetako ofizioak izan zituzten lau zenbatu dira, gehienak euren jabetzatik lortutako diruaz bizi zirenak.

42. Berekin batera Ramon Usabiaga, Ramon Machimbarrena, Diego Echeverria, Victor Samaniego Soroa, Jose Marqueze Iturralde edota Manuel Urcola besteak beste.

Ulía, La Prudencia, Hidraulica Sumbilla, La Maquinista Guipuzcoana, Compañía de Asfaltos Maestu edota Blake and Cia enpresetan⁴³.

Inbertsio hauez gain, aipagarria izan daiteke agian, ikertu diren 12 errepublikano euren jabetzak eskaintzen zizkien errentetatik bizi zirela edo gutxienez, euren irabazien zati handi bat hortik jasotzen zutela. Aipatu diren Iruretagoyena anaiez gain, Nicolas Guerendian abokatuá, Marcelo Garat Partidu Errepublikanoko zuzendaritzan egona eta 1889an zinegotzi izandakoa, zeinak otzanean eta erradikalen arteko tirabiren ostean politikagintza uztea erabaki zuen, Benjamin Brunet *La Voz*-en akzionistetako bat, Blas Escoriaza tolosarra edota Juan Jamar Benitoren semea.

Amaitzeko, turismoarekin zerikusia izan zuten arloekin lotura izan zuten errepublikanoak ia jaso ez dela nabarmentzea faltako litzateke. Biografiatuen artean bakarra zenbatu da zuzenean turismoari begirako ofizioen bat izan zuena, Justo Maria Zavala Gorteetako diputatua eta medikua, Donostiako hospitaleko lehendabiziko mediku postua lortu zuena, Zestoako bainuetxeko zuzendaria izan zen. Turismoak XIX.mendearen amaieratik aurrera Donostian izan zuen garrantzia ikusirik, harrigarria egin da datua eta ziur asko, zorteari egotzi dakioke errepublikano kopuru handiagoa agertu ez izana, autorea ziur baitago, uda denboraldiari eta udatarrei eskaintzen zien arretarekin, errepublikano gehiago egon zirela turismoarekin zerikusia zuten jardueretan sartuta.



Biografiak egin zaizkien errepublikanoen ofizioak ikusita, nolabait formazioari zegokion atalean ikusi denari jarraipen bat eman zaio. Kopuru handi batek

43. Gipuzkoako elite burgesak burututako inbertsioen inguruan, CASTELLS, Luis. *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración*, Madrid: EHU, Siglo XXI, 1987; 416.orritik aurrera.

unibertsitateko ikasketak burutu bazituen, ofizioari dagokionean ere lanbide liberaletan aritu ziren errepublikano gehienak, 29, herena baino gehiago. Lanbide liberalen ostean, enpresa munduak eta merkataritza arloak izan zuten pisu nabarmenena, probintziako testuinguru sozio-ekonomikoaren beharrei erantzunez. Honek, errepublikanoen gehiengoak gizarte maila ertain eta altukoa zela adierazten du era berean, baina ikusienez, ekonomikoki ertain eta behe mailako esparruetatik zetozen kideen kopurua ere kontutan hartzekoa da, langile eta artisauen artean gutxienez 7 hala izan baitziren. Beraz, ofizioa errepublikanismoaren zuzendaritza azterterako orduan beste faktore bat izan zela esan daiteke, nahiz eta erabakigarria ez izan. Gizarteko klase apalagoetatik zetozenek Gipuzkoako errepublikanismoaren baitan garrantzia hartzearen arrazoiak asko izan daitezke. Alde batetik, beste korrante politiko batzuk baino berdintzaileagoa izateko joera erakutsi zuelako errepublikanismoak, nahiz eta praktikara eramateko arazo asko izan zituztela ikusi den. Bestetik, prentsak gizartean orokorrean baina guri dagokigunez errepublikanoen artean izan zuen garrantzia azpimarratu behar da. Idazten eta irakurtzen ongi jakin eta egunkarien lerro editorialetik gehiegi urrundu gabe azaltzeak, norbere ideiak kide askorengana iristea ahalbidetu zien. Zazpi langile eta artisauetatik gutxienez bostek prentsan kolaboratu zuen, eta bost horiek zinegotzi izatera iritsi ziren euren herrietan. Hauen artean aipatu beharko litzateke, beste behin Jose Maria Lopetegui, bertsoen bitartez *populu* errepublikanoarengan eragiteko izan zuen gaitasunagatik.

Jarduera ekonomikoei dagokienean, euren lanbidez gaindi arlo ezberdinetan inbertitu zuten errepublikanoak ez ziren asko izan. Laurdena inguru probintziako industrializazioan garrantzitsuak izan ziren sektore ezberdinetako enpresa ia guztietan aurkitu daitezke. Eta hori gutxi balitz, Castells-ek erakutsi zuenez, enpresa garrantzitsu horietan aurkitzen diren errepublikanoekin batera politikoki liberal monarkikoen korrontean mugitu ziren burgesia aurkitu daiteke. Beraz, errepublikanoek probintziaren *modernizazioan* izan zuten garrantziaz gain, euren jarduera ekonomikoen azterketak probintzian plano politikoan ikusi den errepublikanoen eta monarkikoen arteko harreman korapilatsuak ulertzeko beste datu interesgarria ematen du, politikaz gaindi, ezaugarri sozio-ekonomikoei berebiziko garrantzia izan baitzuten Gipuzkoan errepublikanismoaren bilakaeran. Lotura ez da erabat zurruna, baina errepublikanoen sektore mugatu hau normalean korrante ideologiko otzan edo kontserbadorearen baitan irudikatu daiteke.

7. ELKARTEETAN PARTE HARTZEA

Errepublikanoek Euskal Herrian eta gainontzeko lekuetan elkarteetan biltzeko joera handia erakutsi zuten. Horren adibide garbiena, urte hauetan zehar ireki ziren zentro eta kasino errepublikano, liberal, demokratiko eta bestelakoak dira. Errepublikanoen egunerokotasunean berebiziko garrantzia izan zuten elkarteok. Baina elkarte politiko hauez gain beste hainbat elkartetan ere parte hartu zuten errepublikanoek. Elkarte horiek arlo profesional edo ofizioarekin zerikusia izan zutenetatik hasi eta aisialdirako, kirolerako, gizarte laguntzen ingurukoak edo arlo kulturalerako sortu zirenetaraino luzatu daitezke⁴⁴.

44. Aipatu mota ezberdinetako elkarteen sorrera handia masa gizarteetan aurkitzen den ezaugarria izan ohi dela.

Azpiatal honetan, eraiki diren 85 biografietan elkarrekin zenbaterainoko garrantzia izan zuten adierazi nahi da, errepublikanismoaren ikuspegi orokor bat eskaini asmoz. Hau horrela, 85 horietatik 52, parte hartu zezaketen elkarte politikoez gaindi, beste elkarteren batean parte hartu zuten daturik ez da jaso. Gainontzeko 33 horietan, arlo profesionalarekin lotutako elkarte ugari azaldu dira, esaterako, zenbait kide Sociedad Unión Artesanakoak izan ziren⁴⁵, Justo Maria Zavalak Institutu Mediko eta Frantziar eta Espainiar Garbitasun Elkarteetan parte hartu zuen eta Madrilgo Elkarte Hidrologiko Medikoa sortzen lagundu zuen; aipatu den Ramon Usabiagak 1900ean sortutako Gipuzkoako Botikarien Eskola Ofiziala edota Silvestre Lasquibarrek parte hartu zuen Donostiako Ingerierien Elkarte. Haez gain, aipagarria da agian Donostiako Prentsa Elkarte ere, besteak beste *La Voz*-en zuzendari izan zen Navasek parte hartu baitzuen bere sorreran. Prentsak, ikusten ari denez, berebiziko garrantzia izan zuen Gipuzkoan errepublikanismoaren eta errepublikanoen nondik norakoekin eta horregatik, hemen zilegi litzateke aipatzea baita egunkariaren baten edo bestean parte hartu zuten errepublikanoak, gizartea edo errepublikanismoa egituratzeko gune garrantzitsuak izan baitziren; ez bakarrik propaganda bozgorailuak zirelako, baizik eta kide jakin batzuei irekita zegoen espazio erdi publiko erdi pribatuak osatu zituztelako. Jakina da, egunkariaren baina batez ere *La Voz*-en bulegoetatik jende asko igarotzen zela, eguneko azken albisteak ikusteko, kazetariekin harremanak mantentzeko edo errepublikanismoaren inguruan eztabaidatzeko.

Haez gain, aisialdirako elkarteak dira errepublikanoen artean gehien agertzen direnak. Aisialdikoak, kultura arlokoak, kirol arlokoak edo beste mota batzuetakoak izan zitezkeen: Euskal Billera, SportiClai, Umore Ona, Bella Easo, La Real Sociedad Hípica, San Sebastian Recreation Club, El Real Club Nautico, Ateneo Guipuzcoano, Irungo Club Ciclista, Biyak Bat gimnasioa, Alianza Francesa, La Amistad, Irungo Kasinoa, Irun Club, Eibarko La Amistad, La Marcial Musika Banda, Exploratzailen kontseilu lokala eta Escuadra Zaharra⁴⁶. Beste hainbatetan ere parte hartu zuten errepublikanoek, probintzia osoan zehar, askotan zuzendaritza batzordeetan egonez: Irungo Circulo Recreo eta Atsegíña, Donostiako Fomento de Artes, Veloz Club, Donostiako Orfeoia edota Euskaldun Fedea, bai eta Kasino Handia, Eusko Ikaskuntza, La Amistad, Easonense Zirkulua...

Elkarrekin amaitzeko, gizarte laguntzara bideratu ziren elkarrekin aipamena egin nahiko genieke. Askok agertu ez badira ere, errepublikanoek gizarte arazoan inguruan erakutsi zuten sentibiltasun handia izan zela ikusi da aurreko kapituluetan –nahiz eta gizarte egitura aldatzearen aurka egon– eta hemen jaso diren baino errepublikano gehiagok halako ekintzetan parte hartu zutelaren pentsatzen da. Hemen jaso direnen artean aipatu adibidez, Donostiako Junta de Beneficencia eta Sociedad Benefica la Protectora, edota Gipuzkoako Gurutze Gorria.

45. Bertako presidente izan zen Sebastian Camio 1897an eta Eugenio Gabilondo probintziako diputatua 1888, 1902, 1904, 1909 eta 1910ean.

46. Aurrez aipatu legez, Eibarko errepublikano ia gehienak elkarte honen kide izan ziren.

Beraz, atal honi borobiltasun bat emateko, esan daiteke, agertu diren datuen arabera, errepublikanoen gehiengoak ez zuela elkarte politikoez haratago beste inongo elkarteetan parte hartu, nahiz eta ia mota guztietako elkarteetan presentzia eduki. Era berean, elkarte batean baino gehiagotan aurkitu diren errepublikano ugari ere badira, esaterako Silvestre Lasquibar Gurutze Gorrian eta Donostiako Ingenieri elkartean, edota Jamar anaiak bezala, La Amistad, Kasino Handian, Gipuzkoako Ateneoan eta Easonense Zirkuluan.

8. POLITIKAGINTZA

Gipuzkoan ikertu den errepublikanismoaren azterketa prosopografikoa amaitzeko biografiatuek izan zuten bizitza politikoari buruzko emaitzak azaltzea bakarrik falta da⁴⁷. Esan bezala, aztertu diren 85 horietatik Gorteetarako eta Foruen abolizioaren ostean Diputaziorako ordezkariak lortu zutenak bakarrik zenbatu dira kargu politikoren bat izan zutenen artean, izan ere, ezinezkoa egin baitzaio autoreari probintzia guztiko herrietan zinegotzi izan ziren errepublikano guztiak identifikatzea, eta Donostiakoak egiteak bakarrik hiriburuaren presentzia are gehiago sakondu zuenez, karguetan hainbeste zentratu beharrean, errepublikanismoaren bilakaeran era batera edo bestera –aurrez aipatu den moduan– garrantzia izan zutenen lagina hartu da. Noski, kargu publikoengatik aukeratuak izan zirenek bilakaera horretan garrantzi handia izan zutela ezin ahaztu daitekeen bezala, hemen biografiatu diren askok ere euren herrietan zinegotzi karguak izan zituztela ikusiko da.


Gorteetarako 5 akta lortu zituzten Gipuzkoatik errepublikanoek, eta diputaziora sartzeko beste 35 eserleku Berrezarkuntza osoan zehar. Aurrez aipatu bezala ordea, hauetako askok izendapenak errepikatu zituzten. Aipagarriena agian Francisco Zavala Villarrena izan daiteke, 1899an Gorteetarako diputatu aukeratu izateaz gain, probintziako agintaritzara beste lau saiotan iritsi baitzen, 1882, 1884, 1888 eta 1905ean⁴⁸. Zavala bezala Diputaziorako kargua errepikatu zutenen artean, Nicolas Guerdinain –1882, 1894, 1898–, Ramon Usabiaga –1882, 1888–, Jose Indart –1898, 1903–, Modesto Aguirrezabala –1898, 1903– eta Saturnino Lalanne –1907, 1915– egon ziren. Eta Berrezarkuntza garaian Diputaziora iritsi ziren 26 kideetatik gutxienez 15 probintziako herriren bateko Udaletxean ere zinegotzi edo alkate izan ziren⁴⁹.

47. Ikerketan zehar autoreari iruditu zaio, errepublikano askok eta askok karlisten aurka borrokan egin zutela, eta errepublikanismoarako joera, nolabait karlismoarekiko aurkakotasunak azaldu ahal izango lukeela, baina biografiatu diren 85 kideetatik ziurtasun osoz 15 errepublikano bakarrik hartu zuten parte Gerra Karlistaren batean. Beste gutxienez 29 kidek ez zuten parterik hartu –tartean 1860 baino beranduago jaio zirenak–, eta gainontzekoei buruz ez da informazio fidagarririk lortu. Beraz, kultura errepublikanoa hobeto ulertzeko, hipotesi horretan sakontzen jarraitzeko gogoz geratu da autorea.

48. Zavalaz gain, Ignacio Ibarzabal ere diputatu izan zen 1856an, 1868an eta 1872an, baina ez dugu zenbaketan sartu.

49. Gehiago ere izango zirela pentsatzen da, baina ez da informaziorik lortu.


Kargu publikoengatik biografiatu diren protagonistak gainontzekoekin batera jarritz, bete zituzten karguetara zenbat urterekin iritsi ziren kalkulatu da. Esan bezala, instituzioetan parte hartzeagatik aukeratuak izan zirenez gain, beste askok ere Udaletan kargu publikoak izan zituzten. Biografiatu diren ia erdiei –39– buruzko daturik ez dagoela kontutan hartuta –noiz jaio ziren jakin ez delako eta beraz kargura iristeko adina kalkulatu ez delako, edo kargurik izan zutenik jakin ez delako–, 20 eta 29 urte artean iritsi zirenak 9 izan ziren. Hemen aipagarriak agian, Leandro Uranga zeinak 1876ko Foru Diputazioan parte hartu zuen, 25 urte besterik ez zituela. 30 eta 39 urte artean kargura iritsi zirenak 15 dira. 40 eta 49 urte artean iritsi zirenak 13, eta kargura lehendabizikoz iritsi zirenak eta 50 urte edo gehiago zituztenak 9⁵⁰.



Karguak lortu zituztenean zeukaten adina kalkulatzeko izan diren zailtasunak kontutan hartuta, osagarri bezala, beste kalkulu bat burutzea erabaki da, nolabait biografiatu diren protagonistek instituzio publikoekin eta adinarekin izan zuten erlazioa hobeto ulertzeko. Jaso diren datuen arabera, gutxi gora-behera politikagintzan zein adin tarterekin hasi ziren kalkulatu da. Modu honetara, kargu publikorik izan edo ez, badakigu gehienez adin tarte horretan politikagintzan zebiltzala, instituzio publikoren batean zegoelako, kasino edo partiduko batzarretan agertu zelako, zuzendaritza batzordeko kide zelako edo egunkariren batean politikagintzako gairen batekin bere izena

50. Azken datu hau ziur asko ez da erabat fidagarria, arraroa egiten baitzaio autoreari 50 urtetik gora izanda lehendabiziko aldiz instituzio publikora hainbeste errepublikano sartu izana. Kongresura iritsi zirenen artean baten adina ez da jakin, beste bi 40-49 adin tartean sartu ziren, ia 50 zituztela, eta azkena 50urte baino gehiago zituela. Datu hauekin alderatzeko baliagarria izan daiteke esaterako, 1876 eta 1890 bitartean Euskal Herritik parlamentura iritsi zirenen adina oso zabala dela, 30 eta 70 urtekoen artean parlamentarien %87ak hala baitzuen; eta 1876 eta 1923 bitartean lehendabizikoz parlamentura iritsi zirenen adin tartea nagusia 31 eta 40 urte bitartekoa izan zen.

erlazioz delako –idazlea izan zelako edo norbait berari zuzendu zitzaioelako–. Hemen ere, daturik jaso ez zen kopuru handia alde batera utzita, 23, 20 eta 29 urte bitartean jada politikagintzan zebiltzanen kopurua 21 kidetakoa da. Adin tarte honetan politikagintzan jardun zuten, Justo Maria eta Francisco Zavalak, Nicolas Guerendiain, Alfredo Barrio edota Tadeo Camiok besteak beste⁵¹. Beste 23 errepublikano, 30 eta 39 urte artean jada politikagintzan sartuta zeuden –ez du esan nahi aurretik sartu ez zirenik–. Honen adibide, Ramon Usabiaga, Silvestre Lasquibar, Antonio Iturrioz edota Juan Jose Iruretagoyena. 40 eta 49 urte artean politikagintzan sartu zirenen kopurua 15ekoa da, eta 50etik gora politikagintzan *hasi* zen errepublikano 1 bakarrik zenbatu da. Haez gain, aipagarria da bi kidek 20 urte azpitik izan zutela lehendabiziko kontaktuak politikagintzarekin: Mariano Salaverria eta Francisco Bellido. Mariano Salaverria 19 urterekin Donostiako kasino errepublikanoko idazkari orde aukeratu zuten, ziur asko gazte errepublikanoek zuzendaritzan ordezkariaren bat izan zezaten. Francisco Bellido berriz, aipatu denez 18-19 urte zituela Irungo *La Frontera* aldizkariaren sortzaileen artean aurkitu daiteke, eta 21 urte besterik ez zituela, jada Irungo Partidu Federaleko presidentea zen.



Biografiatu direnetatik 1868-1923 bitartean kargu publikanorik bete ez zutenen edo bete zutela jakin ez den errepublikanoen kopurua 25 kidekoa da⁵². Gainontzeko guztiek bete zituzten aipatu bezala era bateko edo bestekoak. Kargua bete zuten gainontzeko 60 ordezkarietatik gutxienez 33, %55a, bi

51. 21 horietatik gutxienez 17 kidek goi mailako ikasketak burututa zituzten politikagintzan sartu zirenean. Unibertsitate edo goi mailako ikasketen eta politikagintzan sartzeko adinaren artean nolabaiteko erlazioa bazegoela iradoki dezake honek, izan ere, 30 eta 39 urte bitartean politikagintzan sartu ziren errepublikanoak eta goi mailako heziketa jaso zutenen gutxieneko kopurua 12ra jaisten da, ia erdira.

52. 26 hauen barruan sartu ditugu adibidez, Isaac Abeytua, II. Errepublika garaian Gorteetarako diputatu kargua bete zuena, edota Jose Maria Garcia Alvarez, I. Errepublikan Gorteetara Joan zena baina Leongo barrutitik.

aldiz edo gehiagotan aukeratua izan zen, kargu publiko berbera edo beste bat betetzeko. Honen osagarria izan daitekeen beste datu bat ere jaso da: 60 horietatik 47 errepublikano, %78'3, aurkeztu zen hauteskunde guztietan aukeratua izan zen, hutsik egin gabe. Bi portzentaje altu hauetatik zenbait ondorio argigarri atera daitezke. Batetik, hautagaitzak nahiko sarri aldatu zituztela errepublikanoek. Eta bestetik, hautagaiak lortzeko aukera ia ziarra zenetan bakarrik eta hautagai kopuru jakin batekin aurkeztu zirela lehiara.

Karguren bat burutu zuten errepublikanoen eta euren jaiotza edo bizilekuaren arteko erlazioa ere nahiko argigarria da. 60 horietatik 52 errepublikano, jaio edo bizi ziren herrian bertan edo barrutian izan ziren aukeratuak, eta 6 besterik ez probintziako beste barruti batean⁵³. Honek beraz, aurretik esan dena indartzeko balioko luke, alegia, errepublikanoak hauteskundeetara postuak lortzeko ziurtasun handiarekin aurkeztu ohi zirela, eta hori lortzeko bide laburrenetako bat, tokian tokiko hautagaiak izendatzea izan zen.

Probintziako errepublikanoen artean joera nagusia, nahiz eta korrante ezberdinen arteko tirabirak handiak izan, partidu politiko bakar baten pean mugitzea izan zen. Donostian eta Irunen XIX.mendearen azken zatian partidu errepublikano ezberdinak antolatu ziren arren, hauteskunde bakar batzuetara aurkeztu ziren Partidu Errepublikanoa eta ezkerreko sektorea elkarren aurka lehiazteko, eta otzan edo kontserbadoreagoek irabazi ostean, lehiari uko egin zioten. Handik aurrera, udal hauteskunderen batean edo bestean federalen bat edo gazteren bat⁵⁴ partidu errepublikanoen aurka aurkeztu zen, baina joera orokorra, korrante ezberdinetan aurkeztu zirenetan, federalek, erradikalek edo gazteenek, partiduak aurkeztu zituen hautagai ofizialei trabarik egin gabe beste barruti batzuetan ordezkariak aurkeztea izan ohi zen. Halakoetan, beti elkarlanean aritu ziren eta beraz, partidu edo joera politikoei buruz egin daitezkeen gogoetek ez luke datu esanguratsurik ekarriko.

Amaitzeko, eta zuzenean jarduera politikoarekin zerikusirik izan ez bazuten ere, euren perfil politikoaz datu gehiago eskaini dezakeen ezaugarri bat azpimarratu nahi da. 1868 eta 1923 artean gutxienez lau errepublikanok estatu mailako kondekorazioa jaso zuten. Justo Maria Zavalak, Koleraren aurka eginiko lanagatik Cruz de Epidemias, Encomienda de Carlos II eta Cruz de Isabel la Catolica jaso zituen; Tomas Bermingham eta Leon Iruretagoyena Mundu Gerraren ostean frantziar gobernuak Caballero de la Legión de Honor de Francia izendatu zituen, Gerran Frantziaren alde eginiko lanagatik; eta Julian Salazarrek, Gerra Handiaren ostean baita, gobernu britainiarrak emandako Urrezko Domina jaso zuen.

53. Hala ere, probintziaren barnean Gipuzkoan jaio zirenek mugikortasun handia erakutsi zuten eta asko izan ziren, herri batean jaio eta beste nonbaiten bizi izan zirenak. Aipatu denez, bertako kideak izateak Gipuzkoan errepublikanismoak izan zuen ezarpenaren arrazoi nagusienetako bat izan daiteke hau.

54. Biografiak eraiki diren 85 horietatik 7 bakarrik aurkitu dira gazteen organigramaren barrunean. Ziur asko gehiago ere izango ziren, baina datu kopuru urriak ez du beste interpretaziorik egiteko aukerarik eman.

Politikagintzari eskaini zaion azken azpiatal honi buruz esan beharrekoa beraz, alde batetik, kargu publikoak bete zituztenen kopurua nahiko altua dela eta horrek, protagonisten izaera sozio-ekonomikoaren eta politikoaren arteko lotura bat adierazten duela. Gainera, politikagintzan hasi eta kargu publikoetara iristeko adin tarteari dagokionean, 20 eta 40 bitartean hasi eta 30 eta 50 bitartean iritsi, jauzi bat antzeman da, karguak lortzeko aurrez politikagintzan urte batzuk igaro behar zituztela iradoki dezakeena. Hala ere, ez dirudi karrera politiko zehatz bat burutu zutenik errepublikanoek, adibidez, zinegotzi-diputatu-parlamentari. Parlamentura iritsi zirenek ez zituzten diputatu edo zinegotzi posturik bete beharrik izan, baina era berean, diputatu izan zirenen %62ak Udalean karguren bat izan zuen. Honek beraz, karrera politikorik ez izan arren, diputaziora iritsi zirenek beste erakunde publikoetan esperientzia zutela adierazten du. Era berean, harreman estua dagoela dirudi kargu publikoak bete zituztenen eta partiduan karguak izan zituztenen artean, diputatu izan zirenen gutxienez %73ak partidu edo kasinoren bateko zuzendaritzan parte hartu baitzuen. Kopuru hau zinegotzien kasuan oraindik eta altuagoa da, ia %85ekoa. Beraz, kargu politikoa izateko, aurrez zuzendaritza batzorderen batetik igarotzea ia ezinbestekoa zen gipuzkoar errepublikanoen kasuan⁵⁵.

Bestetik, hauteskunderi dagokionean, partidu bakar baten izenpean aurkeztu zirela errepublikanoak gehienetan, eta parte hartzea, hautagaiak lortzeko aukera handia zutenean bakarrik egin zutela, normalean gainera inguruan ezagunak eta bertakoak ziren hautagaitzaren bidez.

9. ONDORIOAK

Gipuzkoako errepublikanismoaren azterketa prosopografikoa borobiltzeko esan beharreko lehendabiziko gauza zera da, ezinezkoa izan dela datu objektibo batetatik abiatuz probintzia osoko errepublikanismoa biltzea eta beraz, lagina aukeratzerako orduan erabili diren datu objektiboaz gain –kargu politikoak...–, autoreak berak ikerketak iraun duen denboran hartutako esperientzia eta errepublikanoei buruzko ezagutza erabili behar izan dituela. Modu honetara, ikuspegi orokorrago bat emateko tokian tokiko errepublikanismoaren bilakaeran erabakigarriak izan ziren kideak aukeratu dira. Behin azterketa prosopografikoa burutzeko zailtasunei eman zaien irtenbidea azaleratuta, zenbait gogoeta egin daitezke.

Gipuzkoan ezagutu zen errepublikanismoa gipuzkoarra izan zen hein handi batean eta Euskal Herrikoa ia bere osotasunean. Euskaldunen artean aipatu nafarrek, asko izan ez baziren ere, eragin ikaragarria izan zutela, Jamar anaiek erakutsi dutenez. Garrantzitsua bestalde, egunkari nagusien zuzendaritzan egon ziren gehienak Estatutik ekarritakoak izana. Errepublikanoen jatorriak tesian zehar azaleratu diren zenbait datu baieztatzen laguntzen du. Alde

55. Errepublikanoek partidurekin eta ordezkaritza motarekin zuten erlazioak, kapitulu honen hasieran aipatu den Katz eta Mairren teorien arabera partidu errepublikanoen sailkapena berresten du.

batetik, errepublikanoen gehiengoak euskaraz jakitea. Bestetik, gizartean kultura politiko honek izan zuen barneratzea, bertakoak izateak lanak erraztu baitzituen. Eta azkenik, gizarteratzearekin lotuta, errepublikanismoa probintzia mailako fenomeno bat bihurtu izana, ez bakarrik Donostiari lotutakoa.

Errepublikanoen kopuru handiena 1840 eta 1850. hamarkadetan jaio zen. Honek, mende aldaketarekin eta Foru Ligaren ostean ezagutu zen generazio aldaketa eta jarraipen eskasa azaltzen lagunduko luke, 1910ean errepublikano gehienak 60 urtetik gorakoak baitziren. Generazio berriak kopuruz gutxitzen joateak berak ere errepublikanismoaren gainbeheran lagundu zuela esan daiteke beraz. Kopuruaz haratago, ezberdintasun gehiago ere nabarmendu dira generazio aldaketari dagokionean. Alde batetik, aipatu denez, errepublikanismo historikoei I. Errepublika baina batez ere karlisten aurkako gerra ezagutu zuten eta horrek nolabait karlismoaren aurkakotasun handia eragin zien, ia bizitza osoan zehar mantendu zutena. Generazio berriek ordea, karlismoaren aurkako jarrera baino euskal nazionalismoaren aurkako nabarmendu zuten, foruzalatasuna makaldu eta espainiartasuna indartu zitzaizen bitartean. Aldi berean, generazio berriek, sozialismoaren eraginez gizarte arazoekiko kezka handiagoa eta soluzioak topatzeko jarrera baikorragoa erakutsi zuten.

Gipuzkoar errepublikanoen artean gehien errepikatu den beste ezaugarria ekonomikoki klase ertain edo altuko familietan jaio izana da. Familiok gainera, politikoki liberalismoarekin nolabaiteko harremana zutela ere pentsatzen da. Errepublikanoei familiartekotasunak errepublikanismoaren baitan presentzia handiagoa izatea ez zien ziurtatu, baina horretarako erraztasunak ekarri zituzkien. Brunet familiakoak, jamartarrak, Iruretagoyena irundarrak edo Aguirre medikuak adibide izan daitezke. Erraztasun horien artean aipagarriak bi. Batetik, ikasketak burutzeko aukera errepublikano asko eta askok izan zuten, eta jasotako ikasketen eta nahiz eta errepublikanismoaren zuzendaritzaren artean erabateko loturarik ez egon, ikasketak edukitzeak errepublikanismoaren bilakaeran eragiteko gaitasun/aukera handiagoak eman zizkiela ondorioztatu da. Era berean, herritarren heziketari eta eskolak sortzeari eman zioten garrantzia ere azalduko luke eurek jasotako goi mailako heziketak. Bestetik, familiak errepublikano hauen ofizioan ere eragina izan zuen. Burutu zituzten ikasketei jarraikiz, errepublikanoen kopuru handienak lanbide liberalak bete baitzituzten.

Lanbidez haratago, sektore mugatu baina garrantzitsu batek, ekonomikoki erdi eta goi mailako klaseetan irudikatu daitezkeenak, industria eta merkataritzarekin lotutako jarduera ekonomiko ugarian parte hartu zuen. Probintziaren industrializazio eta modernizazioan erabakigarriak izan ziren enpresa nagusienetan agertu dira errepublikanoak eta normalean, monarkikoekin batera gainera. Korrante politiko ezberdinetako kideen arteko harremanak, errepublikano otzanek eta monarkikoekin izan zuten erlazioa azalduko luke hein handi batean.

Harreman horiek, jarduera ekonomikoaz gain, bizitzako beste zenbait esparrutan ere antzeman daitezke. Errepublikanoek elkarte politikoetan biltzeko erakutsi zuten gaitasunaz gain, elkarte ekonomiko, aisialdiko, kiroleko,

kultura arloko, profesionaleko eta bestelako elkarte garrantzitsuenetan ere parte hartu zutela ikusi da, horietako askotan eta batez ere Donostian, monarkikoekin batera.

Amaitzeko, jarduera politikoari dagokionean, aipatu beharreko lehendabiziko aspektua lortutako kargu publikoen kopuru handia izan daiteke. Kargu publikoetara 30 eta 50 urte artean iritsi ziren gehienak, nahiz eta politikagintzan hasteko adina 20 eta 40 urteen artekoa izan nagusiki. Karrera politiko zehatzik jarraitu ez bazuten ere, zinegotzi izan ziren askok diputazioan amaitu zuten eta gainera, kargu publikoetara iritsi aurretik partidu edo kasinoren baten zuzendaritzan parte hartu zuten ia guztiek. Kargu publiko batean baino gehiagotan egon zirenak ia herena izan ziren eta hauteskundeetan porrot egin zutenak %22a baino gutxiago. Faktore hauei, hauteskundeetan aurkeztu zituzten hautagaitzak tokian tokiko errepublikanoez osatuta zeudela batzen badiogu, ondorioztatu daiteke errepublikanoak ordezkariak lortzeko ziurtasun handia zutenean bakarrik aurkeztu zirela lehiara eta probintzia mailako fenomeno izaki, kanpotik ordezkariarik ekarri beharrik eduki ez zutela, bertakoak errepublikano gaituak baitziren. Gipuzkoar errepublikanismoa beraz, ez zen Donostiara bakarrik mugatu.

10. BIBLIOGRAFIA

ACOSTA RAMIREZ, Francisco: "Los estudios sobre elites en Andalucía: estado de la cuestión", CARASA SORO, Pedro (ed.): *Elites. Prosopografía contemporánea*, Valladolid, Universidad de Valladolid, 1994, 259-259-268.orr.

AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba et al.: "The MPs of the Basque Country: parliamentary practice (1891-1914)", *Parliaments, Estates & Representation*, 31/1 (2011), 67-88.orr.

AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba et al.: "The MPs of the Constituencies of the Basque Country in the Spanish Parliament (1876-1890)", *Parlamentos: A lei, a prática e as representações. Da Idade Média a Actualidade*, Coimbra (2003), 429-435.orr.

AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba et al.: "Prosopography of the MPs during the emergence of mass politics: The Basque Country-Spain (1916-23)", *Parliaments, Estates & Representation*, 32/2 (2012), 139-153.orr.

AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba et al. (zuz.): *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1800-1876)*, Gasteiz, Eusko Legebiltzarra, 2007.

AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba et al. (zuz.): *Diccionario biográfico de parlamentarios de Vasconia (1876-1939)*, Gasteiz, Eusko Legebiltzarra, 2007.

AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba eta SERRANO, Susana: *Bilbao desde sus alcaldes: Diccionario biográfico de los alcaldes de Bilbao y gestión municipal, en tiempos de revolución liberal e industrial, vol.1: 1836-1901*, Bilbo, Bilboko Udala, 2002.

AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba eta URQUIJO GOITIA, Mikel: "Desafíos de la biografía en la historia contemporánea", *Cercles*, 10 (2007), 57-81.orr.

AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba eta URQUIJO GOITIA, Mikel: "La prosopografía, una història des dels actors", *Papers del Museu d'Història de Catalunya*, 7 (2003), 17-20.orr.

ALONSO OLEA, Eduardo (ed.): "Introducción", GASCUE, Francisco: *El Conciero Económico con*

el Estado, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia eta EHU, 2003,

AMEZAGA, Elias: *Autores Vascos*, Bilbo, Gorka, 1984-1987.

ANDREU, Jean: "Prosopografía", BURGUIÈRE, André (zuz.): *Diccionario de ciencias históricas*, Madril, Akal, 1991, 280-281.or.

ARZAMENA, Jesus M^a: *Donostia, Capital de San Sebastian*, Donostia, Auñamendi, 1964.
Asko, Egile: *Zelebretzko tropa*, Donostia, Alberdania, 2009.

BILBAO, Jon: *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Donostia, Auñamendi, 1976-1981.

BILBAO, Jon: *Eusko Bibliografía, 1976-1980*, Bilbo, EHU, 1985-1987.

BOTTOMORE, Tom: *Élites y sociedad*, Madril, Talasa, 1995.

CARASA SORO, Pedro: "La recuperación de la historia política y la prosopografía", CARASA SORO, Pedro (ed.): *Élites. Prosopografía contemporánea*, Valladolid, Universidad de Valladolid, 1994, 41-51.or.

CASARES RODICIO, Emilio (zuz. eta koord.): *Diccionario de la música española e Hispanoamericana*, Madril, Sociedad General de Autores y Editores, 1999.

CASTELLS, Luis: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración*, Madril, EHU, Siglo XXI, 1987.

CHAUSSINAND-NOGARET, Guy: "Elites", BURGUIÈRE, André (zuz.): *Diccionario de Ciencias Históricas*, Madril, Akal, 1991, 244-246.or.

ELOSEGI, Joxan (ed.): *Joxe Mari Lopetegui. Errepublikanoen bertsolaria (Irun 1875-Arrueta 1942)*, Zarautz, Paper Hotsak, 2004.
Índice biográfico de España, Portugal e Iberoamérica, Munich, Saur, 1997.

KATZ, Richard S. eta MAIR, Peter: "La transformación de los modelos de partidos y de la democracia de partidos", *Zona Abierta*, 108/109 (2004), 9-39.or.

KEATS-ROHAN, K.S.B.: "Prosopography and computing: a marriage made in heaven?", *History and Computing*, 12-1 (2000), 1-11.or.

MARTINEZ RUEDA, Fernando eta URQUIJO GOITIA, Mikel: "Estrategias familiares y poder", *Boletín de la Asociación de Demografía Histórica*, XII/2-3 (1994), 79-92.or.

NARBAIZA AZKUE, Antxon: *Eibarko Agirre Medikak. Hiru mende medikuntzan (1860-2006)*, Eibar, Eibarko Udala, 2006.

PETRIZ RAMOS, Beatrice: *Introducción crítico-biográfico a Jose Maria Salaverria (1873-1940)*, Madril, Gredos, 1960.

PIQUERAS, José A.: "De la biografía tradicional a la historia individual, grupal y masiva", CARASA SORO, Pedro (ed.): *Élites. Prosopografía contemporánea*, Valladolid, Universidad de Valladolid, 1995, 53-62.or.

SADA, Javier M^a: *Historia de San Sebastián a través de sus personajes*, Donostia, Alberdania, 2002.

STONE, Lawrence: *El pasado y el presente*, Mexiko, FCE, 1986.

Belaustegi Bedialauneta, Unai. Gipuzkoako errepublikanismoaren azterketa prosopografikoa (1868-1923).

Donostia, Alberdania, 2002.

STONE, Lawrence: *El pasado y el presente*, Mexiko, FCE, 1986.